

Agurtzane ZUBIETA
Rallyetako
kopilotoa
→ 9

2009ko urriaren 15a | XXIX. urtea | 504. zenbakia

www.ttipi.net

Elizondo feriak

Urriaren 30-31n → 11-22

BERA → 13

XXIII. Lurraren Eguna
urriaren 25ean

OITZ → 30

Gazteen Laxoa
txapelketaren finala 17an

LEITZA → 38

II. Mikologialdia prest
du ALKE kultur taldeak

ARIZKUN → 40

Kirikoketa Eguna urri-
aren 24an eginen da

Senperetik Senpererat. Begirada bat XX. mendeari izeneko liburua publikatu berri du Franck Dolosor berriketari senpertarrak. Kontakizun eta istorio xaharrez betetako liburua da, 1917 eta 1933 artean sortutako 18 gizon-emazteren ahotik bilduak.

ELKARRIZKETA → 3



Iragana ezagutuz, geroa gogoan Senperetik Senpererat

ERREPORTAJEA → 4-5

Medikuak lanez gainezka eta gaixoak atentziorik gabe

Joan den urteko uztailaz geroztik larrialdietako medikurik gabe daude Goizuetan eta Aranon. Badirudi, bi boluntariori esker, zerbitzua berriz paratzekotan dela, baina gaiak eztabaida haundia eragin du, batez ere, berriki gertatu diren bi kasu larri direla-eta.



Begoña MARTINEZ | Leitzako medikua



KIROLIZKETA → 48

Jon Lekuberria zaldun lesakarra

Toledon bizi den lesakarra profesionalki zaldien doma klasiko-
ra dedikatzen da.

ZOKETAK → 42





ORDOKI
altzariak

Larunbat
atsaldetan
irekia

ERAKUSKETA
Bittoria 26
SALTOKIA
Plaza Zaharra 27
Tel: 948 63 77 80
LESAKA



AROZ - BERRI

IRURITA
☎ 948 581021
Fax 948 452103

ORIKAIN
☎ 948 332617
Fax 948 360904

ONGI PASA FERIAKI!

1917 eta 1933 artean sortutako 18 gizon eta emazte senpertzar elkarrizketatu ondotik, *Senperetik Senpererat. Begirada bat XX. mendeari* liburua prestatu du Franck Dolosorrek.

Eskuaraz egin du lan guzia, eta ahozkotasunari garrantzia emanez, elkarrizketatuek hitz egin bezala idatzi du. Horri esker, eskuaraz mintzatzeko ohiturarik ez duten senpertzar

gazteengana ere ailegatu da eta liburua argitaratu berria bada ere, kontent dago erantzunarekin. Baita egindako lanarekin ere: «gustura egin baitut, ez zait lan haundia iruditu».

Franck DOLOSOR | Senpereko kazetaria eta idazlea

«Senpere eta Iparraldeak ezagutu nahi duenak liburuan ditu gakoak»

TTIPI-TTAPA | SENPERE

Nolatan otu zitzaizun liburua hau idaztea?

Badira bi helburu. Alde batetik, Senpereko euskalkia bildu nahi nuen. Hortaz, dena eskuaraz egin dut, Senperen jendea mintzo den bezala, ahozkotasunari garrantzia emanez. Bertzetik, informazioa ere jaso nahi nuen. Herri ainitzetan egin dira horrelako liburuak, eta beti pentsatu izan dut Senperen ere egiten ahal zela. Aspaldi nuen hori buruan, baina horretarako denbora ainitz behar da. Joan den urteko udan egitea erabaki nuen.

Zer aurkituko du irakurleak liburuan?

XX. mendeari egindako begirada bat. Ez da Senpereko historia. Jendeak XX. mendean nola bizi izan duen ageri da: gerlak, kontrabandoa... Zersentitzen zuten gizonek gertara joaten zirenean, eta zer emazteek semea, anaia edo senarra etorri arte. 18 elkarrizketatuen begirada eta nirea ikusiko dituzte irakurleak liburuan. Iruditzen zait XX. mendearen berezitasun bat hain toki ttikian hainbertze gerla izatea dela: bi Mundu Gerla, Espainia -ko Gerra Zibila, Aljeria eta Indotxinakoa... Senperen familia guziek izan dute norbait hunkitua edo kolpatua. Lehenago ere gerlak bazirela erranen dute, baina XX. mendeko



UTZITAKO ARGAZKIA

Franck DOLOSOR, *Senperetik Senpererat. Begirada bat XX. mendeari* liburua eskuan.

lekukoak oraindik bizi dira. Hastapenetik liburua ozenki irakurtzea gomen datzen dut, horrela aitaxi eta amatxi mintzo direla entzunen duzu. Hegoaldetik begiratuz, Senpere edo Iparraldea ezagutu nahi duenak liburuan gakoak baditu.

XX. mendea al daketarena dela diozu...

Bai. Bereziki laborarien herria da Senpere eta ikus daiteke laborantza arront aldatu dela, bertze languziak bezala. Bizimodua

HISTORIAREN GARRANTZIA

«Azpimarratu nahi dut ainitz aipatzen dudala iragana, baina liburua-ren asmoa ez dela iragana goraiatzeari. Halere, uste dut bakoitzak bere nortasuna atxikitzeke nondik gatozen jakitea garrantzitsua dela. Historia xaharrez betetako liburua da, baina geroa dut gogoan»

ere aldatu da, baita harremanak ere: lehenago hiru belaunaldi bizi ziren elkarrekin eta orain bakarra. Azpimarratu nahi dut ainitz aipatzen dudala iragana, baina liburua-ren asmoa ez dela iragana goraiatzeari. Halere, uste dut bakoitzak bere nortasuna atxikitzeke nondik gatozen jakitea garrantzitsua dela. Historia xaharrez betetako liburua da, baina geroa dut gogoan. **Nola bizi izan dute senpertzarrek XX. mendea?**

Denek garai bera bizi izan dute, baina modu desberdinean. Erdiak gizonak dira eta bertzeak emazteak, eta ez dute berdin ikusten. Batzuk laborariak ziren eta karrikatik urrun bizi ziren, eta bertzeak ostalariak ziren. Adibidez, elkarrizketatutako emazte batek gogoan du, II. Mundu Gerlan, bere aita gertara eraman zutela orduko agintarien akats batengatik. Bertze norbaitek erranen dautzu euren etxean alemaniarrek ez zutela horrelako kalterik egin...

Gogoan gelditu zaizun pasadizoren bat?

Gerla kontuak bereziki. Senperen badira gerlan hilak, eta Poloniako kontzentrazio eremu batean ere mugalar bat hil zen. Norbaitek salatu eta alemaniarrek eraman zuten. Gerlan hildakoen artean, nire aitatzaren anaia bat ere bazen. 1940an hil eta 48an ehortzi zuten. Elkarrizketatu guztiek erran didate gorputzak gero izan dituztela. Gerlarekin lotuta, 1944an amerikarrek Miarritze bonbardatu zuten. Aireportua bonbardatu nahi zuten han alemaniarrek bazirelako, baina tronpatu eta hiria egin zuten, eta 18 elkarrizketatu horietan bi han ziren. Liburua egitean, jendea negarrez ikusi dut eta zinez hunkigarria izan da. **Elkarrizketa osoa:** www.ttipi.net-en.

OSASUN ZERBITZUAK → ARAZOAK LEITZALDEAN

Bi mediku boluntariok beteko dute Goizueta eta Aranoko larrialdietako zerbitzuaren hutsunea

2008ko uztailetik bi herri horietako larrialdietako kasuak Leitzan artatzen dira

Goizuetan eta Aranon 15 hilabete daramatzate larrialdietako mediku zerbitzurik gabe. Geroztik urgentzia kasuak Leitzan artatzen dira, Goizuetatik 20 kilometrora eta Aranotik 33ra. Zerbitzua lehengora buelta -

tzeko ahaleginean ibili dira hasieratik, baina azken aldiko bi gertakarik eztabaida areagotu dute. Dena den, badirudi egoera hobetzear dela, bi mediku boluntariok euren burua eskaini baitute larrialdietarako.



TTIPI-TTAPA | GOIZUETA-ARANO

«Amari bihotzekoak eman zion sukaldean afaria prestatzen ari zela, eta berehala hil zen. Gure kasuan ez zen anbulantzia berandu iritsi zelako hil, baina abisua eman genuenetik anbulantzia etorri zenerako ordubete inguru pasa zen, eta medikua etortzerako ordu bat eta laurden». Horrela kontatzen digu Ana Urdanpilleta aranoarrak. Irailaren 17an Juana Agirre ama hil zitzaion, eta momentuan hil zelako «ezeregiterik ez bazegoen ere», mediku zerbitzuaren atzerapenak zerpentsatua eman du.

Eta hiru egun barru beste ezbehar larria Goizuetan. «Plazan geundela gizon batek pisu batean leherketa baten soinua entzun zuela esan zigun. Bi boluntario harat inguratu ginen eta etxetik ke asko ateratzen zela ikusi genuen. Etxeko gizona balkoira atera zen eta erreta zegoen, aurpegia eta es-

kuak guztiz erreak zituen». Jabier Apezetxea Goizuetako suhiltzaile boluntarioaren hitzak dira. Gas leherketa batek 86 urteko Esteban Loiarre goizuetarra zauritu zuen irailaren 20an eta Jabier izan zen, bere lagunekin batera, Esteban artatu zutenetako bat. Kasu honetan, anbulantzia medikalizatuak ordubete baino gehiago behar izan zuen Donostiatik Goizuetara ailegatzeko. Bitartean herriko anbulantzia taldeak eta suhiltzaile boluntarioek artatu zuten, 112tik telefono bidez mediku batek ematen zituen gomendioei kasu eginez. «Ezin genuen herritik atera, anbulantzia medikalizatu eskatua zelako», aipatu du Apezetxeak. Zainketa Intentsitatean egon dabi astez Esteban, baina zorionez, atera da eta hobeki dago.

ZALAPARTA HAUNDIA

Oihartzun haundia izan dute bi gertaera

hauek eta aldi berean, Leitzaldeko larrialdietako zerbitzuaren funtzionamendua ere zalantzan paratu dute. Leitzan, Areso, Arano eta Goizueta guardiako mediku bakarrek in daude joan den urteko uztailez geroztik. Medikuek kontratatze-ko arazoak zituztela esanez, Goizuetako larrial-

dietako zerbitzua kendu egin zuen Osasunbideak eta lau herrietako larrialdi zerbitzuak elkar-tu, eta ordutik honat, aranoarrek eta goizuetarrek goizeko ordutegitik 08:00etatik 15:00etara kanpo larrialdiren bat baldin badute, Leitzara jo behar dute. Jakina da, ordea, herri batetik bes-

terako bidea ez dela batera ona, kilometro eta bihurtune asko baitaude. Hortaz, sarritan, 112ra deitu aurretik, auttoa hartu eta Donostia-joatea erabakitzen dute: «112ra deitu eta anbulantzia Goizuetara ailegatzeko gutxienez 40 minutu behar dira, eta tarte horretan gu Do-



ESALDIA

«Medikuaren postu finkoa nahi dugu. Zer gertatuko da bi hauek zerbitzua eskaini ezin duten egunean?»


Mieljoxe LEKUONA
Goizuetako alkatea



ESALDIA

«Goizuetatik Aranora etortzeko medikuak ordu erdia beharko luke; ez da ordubete, behintzat»

Iñigo LARREA
Aranoko alkatea



ESALDIA

«Bi larrialdi aldi berean gertatuz gero, arriskutsua izan zitekeela ohartarazi genuen apirilean»

Begoña Martínez Aguado
Leitzako medikua



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Goizuetako kontsultako itxaron gela, goizeko ordutegian

nostian gaude», dio Jabier Apezetxeak. Gainera, «behin baino gehiagotan tokatu da, Leitzara joan eta handik Donostiara bidaltzea».

APIRILEAN ABISATUAK

Bi kasu hauek hutsak harrotu dituzte, baina Leitzako Osasun Zentroko medikuek aspalditik zuten halako zer-bait gertatzeko beldurra. Hala, apirilean eskutitz bat bidali zioten Osasunbideari. «Arduratuak geunden egoera honekin. Ez dago medikurik eta bi larrialdialdi berean gertatuz gero, herri batetik bestera dagoen distantzia ikusita, arriskutsua izan zitekeela ohartarazi genion», azaldu digu Begoña Martínez Aguado Leitzako medikuak. Arazoari konponbidea ematen behin eta berriz saiatu direla ere nabarmendu digu, baina alferrik. «Hasieran medikurik ez zegoela esaten zuten, eta Goizuetako larrialdietako zerbitzua ken-

DATUA

Ordu 1

baino gehiago behar izan zuen anbulantziak Donostiatik Goizuetara ailegatzeko, eta Esteban Loiarde artatzeko

tzea urgentziako neurria izan zela. Baina martxoan SUREko landa eremuko larrialdietako zerbitzua medikuak hasi ziren lanean eta hiru mediku eta erdi etorri ziren Leitzara larrialdi zerbitzuez arduratzeko. Baina Goizuetako zerbitzua hutsik gelditu zen», dio Martínez Aguadok.

Osasunbideak bi kasu hauek ikertzeko abiatu duen barne ikerketaz ere mintzatu zaigu Leitzako medikuak: «baliabideak zergatik ez ziren erabili leporatu digu eta aspertuta gaude. Heli- puertoa zergatik ez zen erabili galdetu dute, bai-

LARRIALDIETAKO ZERBITZUAK GOIZUETAN ETA ARANON

Itxaropena boluntarioekin

Badirudi arazoak hobera egin dezakeela urria bukatu baino lehen. Edo hori espero dute behinik behin. Osakidetza medikuren batek bere burua proposatu du Goizuetan asteleheneetik ostiralerako larrialdi kasuez arduratzeko, eta ongi etorria izan da. Osakidetza eta Osasunbidea akordio baten bila dabilta, eta alkateek hilabete honetan lanean hastea espero dute.

Asteburuetako zerbitzua estaltzeko, berriz, Hernanin lan egiten duen Goizuetako Joxe Jabier Etxeberria medikuak bere burua eskaini du. «Lehen ere askotan apurrik atera gaitu», aipatu du Lekuonak. Bi mediku hauen borondatea «eskertzekoa» da Goizuetako alkatearentzat,

baina «guk postu finkoa nahi dugu. Zer gertatuko da bi hauek zerbitzua eskaini ezin duten egunean?».

Lehenbailehen martxan paratzea nahi dute aranoarrek eta goizuetarrek. Aranoarren kasuan, 13 kilometrorako edukiko lukete larrialdietako zerbitzua, eta «medikuak etortzerako ordu erdia beharko luke; ez da ordu-bete, behintzat», adierazi du Larreak. Edozein modutan, zerbitzuaren beharra agerikoa da, bestela, horrelako kasuak «noiznahi» errepika daitetzkeelako. Hortan bat datoz elkarriketatutako guztiak.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Oihartzun handia eduki dute bi ezbeharrek hedabideetan

na ez dago eguneko 24 ordutan erabiltzerik. Gainera larrialdi kasu batzuk ez dute medio haundiegirik behar, medikua han egotea bakar-bakarrik nahikoa da». Bide beretik jo du Mieljoxe Lekuona Goizuetako alkateak ere: «Heli- puertoa egin genuen %100ean Udalak ordainduta, baina ezin da erabili sendagilerik ez badago, honek agindurik ematen ez badu».

'LEITZAN ETA GOIZUETAN GUARDIAN DAGOENAK ZERGATIK KOBRATU BEHAR DU DESBERDIN?'

Galdera horixe bota du airera Mieljoxe Lekuonak. Horrela baita. Izan ere, Leitzan eta Nafarroako beste tokietan edo Goizuetan eskaintzen diren baldintzak ez dira berdinak. «Goizuetan txarragoak dira», dio Martínez Aguadok. «Soldata normal bat lortzeko ordu asko sartu behar dira Goizuetan. Leitzan eta Nafarroa osoan, aldiz, soldata berdi-

na lortzeko ordu gutxiago egitea nahikoa da». Hortaz, Lekuonak dioten bezala, «sendagileentzat ez da motibagarria Goizuetara etortzea».

Osasunbideak estatistikei begiratzen diela uste du Goizuetako alkateak: «hemen ez dira larrialdi kasu asko izaten eta horren arabera funtzionatzen dute. Hau lruñean gertatu izan balitz, edozein kontsulta edo anbulatorioan, seguru irtenbidea aurkitua izanen zutela. Baina kontua zer da estatistikak igotzea? Prebentiboa izan beharrean, sendagilearengana joan dadila?». Bide beretik, zera adierazi digu Iñigo Larrea Aranoko alkateak: «hiriko edozein medikuk behar bada gaixo gehiagore ingurua nolakoa

den kontuan hartu behar da. 1.000 lagun inguru biziko gara bi herrietan, baina oso sakanatuak gaude».

BILERA ASKO, BAINA ERANTZUNIK EZ

Panorama, beraz, beltza. Alkateak arazoa irtenbidea emateko behin eta berriz saiatu dira: «lauzpabost bilera egin ditugu inguruko sendagileekin eta Osasunbidearekin, baina sendagilerik ez zegoela esan digute behin eta berriz, beste motiborik ez zegoela». Larrialdietako zerbitzua lehengoratu bueltatzeko eskatuz sinadurak ere bildu zituzten Goizuetan, 512 guztira –herriarren %64–. «Kexa horiek zuzendaritzara bidali ziren, baina ez dugu erantzunik jaso», dio Lekuonak.



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

Mendi garbitzaileak

Garai batean, mendiko hainbat larre garbi-garbi edukitzen zituzten baserrietako nekazariak eta euren aziendek. Orduan aise ibiltzen ahal zen baso, bidexka eta orgabideetan barna, ez baitziren, orain bezala, sasiek janak. Egun, laborariak eta aziendak izugarri urritu dira, baina lasai, batez ere, irail eta urri aldera animalia orojale beldurgarri bat agertzen da basoetan: onddo bilaria. Aitzinean harrapatzen dituen lahar, ote eta iratze mutur guziak garbitzeaz gain, basoko goroldio eta hostope gehienak harrotuko ditu sari preziatuaren bila. Basurde gaixoak, harat muturka aritzera agertzen delarik, bertze piztiaren bat ere lurra iraultzen aritu dela ikusiko du, eta beharbada, han botata utzitako txokolate paper, tabako pakete edo plastikozko botilaren bat ikustean, eginen du bere baitan, «To, erregaluak utzi zizkidatek!». Basurdeak, ordea, ez daki basoa hain «garbi eta leun» ikustearen arrazoi baliotsuak ederki ezagutzen dituen onddoak direla; diru estra pizar bat irabazteko eta aldizkari honetako argazkietan guardasol berriak edo urrezko kopak erakusteko balio duten zapel eta zangar maitagarri horiek.

Ezpala
Aitor AROTZENA

Epeak, datak eta gezurrak

Ez dugu N-121A errepideko lanak bukatzeko ekaina baino beranduagoko eperik aurikusten (NG 2009.02.27). Sunbilla-Berrizaun tartearen abuztuaren 15erako eta Berrizaun-Bera irailaren 30erako (NG 2009.07.24). Amiselaletako tuneleko arazo geoteknikoek (zertarako dira azterketak?) hilabete batez gibeleratuko dute Etxalar-Bera tartearen irekiera (NG 2009.09.22). Noiz arte, NG?

Nabarmentzekoak



Maxima ARRETXE
100 urteko gartzaindarra

Irailaren 28an ehun urte bete zituen Gartaingo Etxebarrenen jaio eta gaur egun Aldekoan bizi den emakumeak. Mugitzeko arazoak baditu ere, sasoi ederrean bete du mendea Maximak.



Fede ARRIBILLAGA
Etxalarko palistaren heriotza

Irailaren 30an hil zen Arribillaga I.a, Etxalarko palista handia, 55 urte zituela. 18 urterekin denbutatu eta Espainiako txapeldun izan zen Agustin anaiarekin. 1996an erretiratu zen.



Iñigo LASAGA
Etxalarko korrikalaria

Azkeneko lasterketa, Urbasako Igoera eta Jautsiera irabazi zuen urriaren 4ean eta honela, Nafarroako Mendi Lasterketen Kopa ere eskuratu du. Manttaleko korrikalaria bikain ibili da.

Atzera begira → 1992.10.15 / TTPI-TTAPA 95. zbk



Laminaciones-eko ordezkaritza Madrilera oinez 1992an

Laminaciones de Lesaka enpresako hogeitazazko ordezkaritza abiatu zen 1992ko urriaren 9an Madrilera oinez, Siderurgia Korporazioak aurkeztutako Konpetibitate Planaren aurka beraien protesta azaltzeko. Enpresa komiteko sindikatu guzietako kideek parte hartu zuten. Goizez Iruñera autobusez abiatu ziren eta handik Laudiora. Bertan AHVko gainontzeko planten ordezkariak bildu eta Madrilera abiatu ziren, tipi-tapa. Planak Lesakan eragin handirik izan ez zuela uste bazen ere, sindikatuen arabera «zentralari gerta dakioken edozer, eragina izanen du denborarekin Laminaciones-en etorkizunean».



Argitaratzailea Ttapi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andutzeta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Maite Oteiza, Jaione Obxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2009ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	36€	Ipar Euskal Herria	54€	Amerika eta Australia	120€
Espainia	36€	Europa	54€	Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	30€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak
diruz lagundutako aldizkaria



Irakurleak mintzo

Ikasturte berria
hastera doa
Bortzirietako
Euskaltegian

Mentxu PEÑA

Zorionak hasiko zaiten guztioi. Zorionak ikasteko gogoia duzue-lako, ahalegina egiten ari zaretelako euskaraz mintzatzeko. Zorionak euskaraz irakurtzen eta idazten ikasten ari zaretelako. Zorionak zuen burua janzen ari zaretelako eta zuen denboraren zati bat horretan eman eta gozatu egiten duzue-lako. Zoriontsuak, ordea, gu euskaldunok, dendera joan eta dendariak euskaraz egiten ahal digulako, zoriontsuak gu, Kutxako langileak euskaraz egiten ahal digulako, zoriontsuak gu, amak, gure ustez erdaldunak, bere seme-alabei euskaraz mintzatu eta eskolako lanetan laguntzen ahal diolako, zoriontsuak gu, herrian dabilen "beltxaran" horrek euskaraz solas egiten duelako, zoriontsuak gu, gure haurrek eskolatan euskaraz ikasten ahal dutelako. Baina guk ez al diogu gure buruari euskaraz jakin arren, irakurtzen eta idazten ikasteko gozamenak eskaini behar? Ez al dugu beharrik ikusten euskaraz irakurtzen edo idazten ikasteko? Ez al da maingua izatea bezalakoa mintzatzen jakin bai, baina lirakurtzen edo leitzen eta idazten edo eskribitzen, ez jakitea?

Ez al dizu minik ema-

ten zure seme-alabei eskolako lanetan ezin lagundu izateak? Ez al lizuke poza emanen liburu bat edo edozein agiri (paper) euskaraz konprenitu eta zuk ere agiri hori euskaraz betetzeak?

Behin haxe ikusi eta entzun nuen: "Gure herriko emakume bat osasun etxeko (autobusean) lei-hatilan erdaraz ari zen, kostata baldin bazen ere; juxtun-juxtun ari zen, hala ere elkarrizketa akautu zutenean papertxo bat eman zion bulegariak, eta erdaraz edo euskaraz nahi zuen galdetu zion, eta emakume euskaldun ia elebakarrak, erdarazkoa emateko eskatu zion". Honek dena diola uste dut.

Eta zu,
mutil al zara?Nora SALBOTX ALEGRIA
Agoteak XXI-eko kidea

Berriki leitu ahal izan dugu Elizondoko txistulariek herritarrei helarazitako idazkia. Bertan, mutildantzetan nesken parte hartzea gaitzetsi eta, ondorioz, egoera hauetan ez jotzeko erabakiaz solas egiten dute. Norbanakoen erabaki pertsonaletan sartuko ez banaiz ere, kezkarria deritzodan neurrian, gisa honetako iritzia duzuenei galdera zenbait luzatuko dizkizuet. Erantzuna zinez eskertuko nuke, ikuspegiak argitzea garrantzitsua deritzodan heinean. Galdemodua oinarritzakoa da, argigarriak balizko erantzunak: nor



Bota bertsoa

Alazne UNTXALO (Ituren) / Neurria: Habanera berezia

Bertsolari txapelketa nagusia abian

Lau urtez behineko zita
iritsi da dagoneko
hamalau saio tarteko
Zestoatik hasita
txapelketari segika
badago zale ugari
ezinegon nabari
finalerako irrika
bertsoak batu gaitzala
hamahiru mila guztira
zortzi igaroko dira
saioak joan ahala
Barakaldon da finala
tartean dago Egaña
batek lortuko du baina
txapel beltzaren itzala.

Txapelketako promesa
puntako lau bertsolari
dira nafar ordezkari
nahiz ez eta ez den erreza
emanen dute sorpresa
haintzat zorte onena
eman dezatela dena
eta bizitu ametsa
gogoz eta ilusioz
betetzen nau txapelketak
sabelean tximeletak
eta bi begiak malkoz
gozatu hutsaren asmoz
berdin du zein txapelduna
guztioak batzen gaittuna
bertsolaritza delakoz.

da bada zuendako mutil Baztanen, Elizondon, zehazki? Mutil (beraz mutildantzetan parte hartzeko eskubidedun, zuen aburuz) al dira haur, nerabe, ezkondu eta aitatzak? Ala, ohikoaz ari zaretelako kontuan izaki, ezkongabeko gazteak bakarrik, dira mutil? Mutil al da inolako instituziotik pasatu gabe, bikotearekin elkartuta bizi dena, baldin eta ezkondu ez den? Eta ezkondu delarik ere, gero banandu bada berriz mutil bihurtzen al da? Epaitegiak aitortu behar izan al dio banaketa inori, honek berriro ere mutil estatusa berreskura dezan? Mutil al dira zuendako zortzikoa dantzatzan duten emazteki eta andreak? Ohiko mutildantzetat ari zarete, Baztanen bertan sortutakoa behar al

da mutil izan ahal izateko? Posible litzateke Senegalen edota Ekuadorren sortutako mutilik? Diasporako baztandarren seme-alabak mutil al dira? Eta Urritza - ten, Potosin ala Boisen sortua izanda ere, sexu biologikoz arra izanda, gonarekin jantzita balego? Zuen oniritzirik al luke ohikoak ez diren gozatze eta ohiturak dauzkan gizonezkorik? Pausu bat haratago, bere sexuan ezinegon bizi eta sexu aldaketarako ebakuntza egindakoa balitz dantzaria?

Antzinekoei ezin galdetzen dizkiegu hauek denak. Garai horietan horrelakorik ez zelakoz edota, pertsona zein jendarte mailako hainbat presio (eta errespresio) tarteko, izenik gabeko izanak, izan, bazi-relakoz gurean ere. Zi-

nez uste al duzue gaur egun argudio biologizistek ibilbiderik izan dezaketela? XXI. mendeko Baztanen, zorionez, neska izandako mutilak, mutil izandako neskek, neska sortutako mutilak ezagutuko dituzue. Bistan da generoa sexu biologikoa baino zerbait gehiago dela, bistan da herriko plaza gaueko 10etan (eguerdian berdin) ez dela inoren esparru pribatua, bistan da eskubide ukatzeak tokirik ez daukala gaur egun. Zuek ez baduzue horrelako egoera batean jo nahi, etzazuela egin doike, baina utzi folkloeari garratzen, bere bidea egiten gaur eguneko jendartean, ez dira atek ixteko garaia, berauek ulertzeko eta hauetara egokitzeak baizik.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Andutzeta, 12 31760 ETXALAR


Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57

11 galdera labur



Gerardo DANBORIENA
Etxalarko usazalea
D. VASCO. 2009.10.04

zioa.



Agurtzane ZUBIETA → Sunbillako gaztea

Ez dakit... Nahiago dut ez erran!


OKA NEA / URDAITEGIA
jose Luis E. GARCIA
Tfno/Fax: 948 630 018 Kanttonberri 12 • BERA



Zelaiñ - BERA - 948 630 052



Arzob. 10 BERA 94800785

ANTZUZELA:
S.L. 1

Tel: 948 631 317

HART NATURALA

Abarretzen eta Lantzen

Astutzailak	Txerolak
Argiak	Sopak
Urak gortzeko	Mezurak
Leinak	Zakurak
Isaki	Alargak
Arakak	Nerrotak
Pilakak	

Erregulazio-Makina
Zakur gortzeko Tasmakina

**TWIGGERS
ADOSTINAR
201AR**

Irungo erregulazio
BENA



Martiko
 Pol Zauin, 3/1,
 31780 Bers. Nafarroa
 Tel: 948 025016 Fax: 948 025036
www.martiko.com

Hasierako artikuluak eta artikuluak





DENDA
 ORDUTEGIA
 ASTURNEZ ETORZIALERA

8.30etik
12.30era
14.30etik
17.00etara

KULTURA

NAFARROAKO EUSKAL KANTU TXAPELKETA →

Azaroaren 4an akituko da Nafarroako Kantu Txapelketan izena emateko epea

Finala azaroaren 21ean jokatu da Elizondon

TTIPI-TTAPA

Euskal Kantuzaleen Elkartearen ekimenez, laster abiatuko da Nafarroako Euskal Kantu Txapelketaren edizio berria.

Dagoeneko izen-emateko epea zabalik dago eta azaroaren 4ra arte izanen da aukera. Interesatuak hainbat bi-

de dituzte izen-emateko: Euskal Kantuzalearen Nafarroako egoitzara deituz (948 144706 -9:00etatik 14:00etara- edo idatziz (nafarroaga-raia@kantuzale.net)). Edo bertzela, Nafarroako edozein irati euskaldunetara joz. Gure eskualdean, Xorroxin eta Karrape irratietan eman daiteke izena.

FINALA ELIZONDON

Txapelketako lehen-biziko kanporaketa azaroaren 7an jokatu da



UTZITAKO ARGAZKIA

Bakarka, bikoteka zein taldean aurkez daiteke txapelketara. Argazkia joan den urtean Altsasun egin zen kanporaketan ateratakoa da.

Etxarri Aranazko Kultur Etxean, 18:00etan. Bigarrena Berriobeitiko Kultur Etxean azaroaren 14an, hau ere 18:00etan. Eta final haundia, azaroaren 21ean jokatu da Elizondoko Lur dantzalekuan, 18:00etan.

Beti bezala, 15 urte-tik goitiko edozeinentzat

zabalik dago lehiaketa, beti ere, kantari amateurak baldin badira, eta salgai dauden grabaketak ekoiztu ez badituzte.

Bakarka, bikoteka zein taldean kantatu ahal izanen da. Bakoitzak bi alditan aurkezteko aukera izanen du kanporaketetan. Finalerako sailka-

tuz gero, epaileek erabakiko lukete zein abestuko duen finalean.

Bertzalde, aitzinekoetan bezala, partaide berrien meritua gogorazteko *Berrien maila* osatuko da, eta sari berezia jasoko dute. Taldean parte-hartzeari ere bulkada berezia eman nahi zaio.

ETXALARKO KULTUR EGUNAK 2009

URRIAREN 16an 19:00 HAURRENTZAKO FILMA: <i>Perez sagutxo</i> 2 Kultur Etxean 20:30 MARIMENDI EMAKUME taldearen aurkezpena. <i>Europako gailurrera espedizioa: Elbrus (5.642)</i> Kultur Etxean	URRIAREN 29an 19:30 PELLO APEZETXEAREN bi liburuen aurkezpena <i>Etxalarko etxeen izenak eta Etxalarko historia</i> Kultur Etxean
URRIAREN 23an 15:00 IRUNGO TXISTULARIEN BANDA Kultur Etxean	URRIAREN 31n 20:00 FANFARREA: Muthiko Alaiak Plazan BERTSO AFARIA Herriko Ostatuan Lesakako eta Irungo bertsolariak [Txartelak erosi aitzinetik!]

Antolatzailea:
Etxalarko Euskara Batzordea

Laguntzailea:
Etxalarko udala

Bartzarrietako Euskara Mankomunitatea

UDALA → TURISMOA

Aterpe turistikoa egin nahi du Udalak Kaxernan

Hasierako proposamena urriaren 20rako Herriko Etxean

TTIPI-TTAPA

Kaxernagaina ingurua egokitu egin nahi du Udalak eta horretarako, aterpe turistikoa egiteko azpiegiturak egokitu, eskaintza turistikoa dibertsifikatu eta bidegararritasun azterketa egiteko proiektua idazteko deialdia egin du. Gehienez ere 72.000 euroko aurrekontua izanen du eta hasierako proposamena urriaren 20a baino lehen aurkeztu behar da Herriko Etxean. Aurreproiektua azaroaren 20a baino lehen aurkeztu behar da eta oinarrizko proiektua, berriz, abenduaren 15erako.

Baldintza pleguaren arabera, aterpeak lehen mailakoa izateko araudia bete behar du: 50 bat lagunendako jangela, harrera, denda, komunak, aldagela eta dutxentzako lekua, biltegia eta logela bikoitzak, familiendako logelak komunekin eta 2, 3, 6 eta 10 literakoak...

GAZTETXEA ERRESPETATU

Kaxerna Frankismo garaian mugimenduko emakumeen aterpe gi-

sa erabili zen eta gero Nafarroako Gobernuak hartu zuen, ikasleen erabilerako. Baina 1983 inguruan itxi eta geroztik aunitz hondatu da, erabilerarik eta mantenindurik gabe. Berriz Udalaren esku gelditu zenetako, hondatua zegoen eta egokitzeko inbertsio handia behar duenez, ezin izan du orain arte deus egin.

Kaxernaren zati bat Gaztetxea da eta zati hori errespetatu beharko dela dio baldintza pleguak. Edozein moduz, eraikinaren egoera dela eta, aurreproiektua idazterakoan dena bota behar den edo moldatzea erekin aski den aztertu beharko da.

Hauteskundeak Martikon

Maiatzean egin ziren hauteskunde sindikalak

Martiko Ahatekiak enpresan eta aurten estreinakoz UGT sindikatuak bi ordezkari atera ditu. 100 langilek eduki zuten botoa emateko aukera. ELAk 72 boto jasoz zituen eta UGTk 24. Horrenbertzez, ELAk zazpi ordezkari lortu zituen (Sabino Gomez, Maite Toledo, Ramon Telletxea, Paula Gartzia, Miguel Angel Etxegarai, Jose Luis Tapia eta Loli Seoane) eta UGTk bi (Alberto Sanz eta Juan Antonio Latorre). 4 boto zuri ere izan ziren.

Lurraren Eguna urriaren 25ean

Urriaren 25ean, XXIII. Lurraren Eguna egingen da. Goizeko 10:00etatik Altzaten eskulangleen azoka eta barazki erakusketa izanen da. 10:30ean argazki erakusketa izanen da La-

biaga ikastolan. 11:00etan gasna eta sagardo lehiaketak egingen dira Ricardo Baroja eskolan eta ordu berean trikitilari taldeak bere ibilaldia egingen du. 12:00etan Isidoro Fagoaga Musika Eskolaren 30. urteurrenaren kalejira berezia egingen da. 13:00etan Berako musika bandak Altzateko plazan emanaldia eskainiko du. 16:30ean Hipo eta Tomax pailazoak izanen dira Altzateko plazan eta gero sari banaketak, enkantea eta Julen Zelaia eta Jon Elizetxe beretsolariak ariko dira. 18:00etan Gure Txokoko dantzariak ariko dira eta Trikidantz taldeak joko du.

Bezperan, larunbatean, Lizuniagako lgoera egingen da 17:00etan eta barazkiopil lehiaketa 19:00etan, trikitilari- en laguntzarekin.



ARGAZIAK: AITOR AROTZENA

Mugarik Gabe topaketa

Seigarren urtez antolatutako Mugarik Gabe Kulturarteko Topaketa arrakastatsua izan zen. Etorकिनak gizarteratu eta kultura ezberdinak ezagutzera emateko helburuak eduki ziren eta hainbat lagun, hemen jaiotakoak nahiz kanpotik etorrita hemen bizi direnak, bildu ziren eskolako frontoian.

FLASH

Urriko hitzorduek

Hilabetea bukatu artean, gisa guztietako ekitaldiak izanen dira:

JOSEBA IRAZOKIREN KONTZERTUA

Joseba Irazokik kontzertua eskainiko du urriaren 17an Jamotenean, 20:00etan. Isidoro Fagoaga Musika Eskolak antolatu du.

LIBURUTEGIAREN EGUNA

Liburutegiaren Eguna dela-eta, urriaren 23an haurrentzako ipuin kontalaria ariko da. Lur Usabiagak *Mimiaren abenturak* kontatuko ditu. 18:00etan izanen da Herri Liburutegian.

LIZUNIAGAKO IGOERA

Gure Txokoa Elkarteak antolatuta, urriaren 24an Lizuniagako lgoera egingen da. 17:00etan abiatuko da eta lasterkalariak 4,9 kilometro egin beharko dituzte.

NAFARROA OINEZ

Igandean Etxarri-Aranatzen ospatuko den Nafarroa Oinezarako autobusa antolatu du Labiaga ikastolak. Izen emateko azken eguna urriaren 14a izanen da, 12 euroren truke. Autobusa 08:30ean abiatuko da lamoteneatik.

ABESBATZAREN KONTZERTUA

Txinako Peiyang Chorus abesbatzak emanaldia eskainiko du urriaren 25ean Kultur Etxean. 20:00etan hasiko da eta sarrera bortsu eurokoa izanen da.

IPIIN KONTALARIA

Ines Bengoa ipuin kontalaria Herri Liburutegian izanen da urriaren 30ean. 4 eta 7 urte bitartekoentzat ipuinak kontatuko ditu.



LESAKA

UDALA → URRIAREN 9AN EGIN ZEN LEHEN BATZARRA

PNVko Juan Fermin Mitxelena abudo izendatuko dute ofizialki alkate

Koldo Erkiziak (EA) dimisioa gauzatu gero jardunean kargu hori betetzen du urriaren 2az geroztik

du ordezkorik, zerrendan bere gibeletik zeuden bi lagunek kargua ez dutela hartu nahi adierazi baitute idatziz.

Urriaren 9ko batzarrean gehiengo osorik lortu ez badu, bigarren batzar batean udal hauteskundetan botu gehien jaso zuen hautagaia, Juan Fermin Mitxelena, alegia, izendatuko dute. Koldo Erkiziak dimisituko zuela jakinarazi zuenetik gauzak zein abudo mugitu diren ikusita, PNVko zerrendaburua laister baino abudoago alkate izanen dela aurikus daiteke.

Saneamendu lanetarako mailegua

Onin, Otsango eta Fraingo saneamendulanak finantzatzeko 315.650 euroko mailegua hitzartu du Udalak Nafarroako Kutxarekin, jasotako bi eskeintzen artean onena zelakoan. Ahobatez hartu zen erabakia, Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioako departamentuak Onbideratze-Plana onetsi eta gero. 20 urteko epea izanen du Udalak ordaintzeko.



ARGAZKIA: AITOR A.

Erkiziak dimisioa gauzatu eta bere lekua hartu zuen Mitxelenak urriaren 2ko batzarrean.

Zergak eta tasak goiti

Udalak zergak biltzeko gaitasuna handitzea komenigarria ikusi du eta ahobatez, udal-

kontribuzioak egunera - tzea erabaki du, %3,2ko igoera aplikatuz. Udal-tasen tarifak eta zenbait zerga ere eguneratu ditu, Udalak dirua biltzeko gaitasunari euts

diezaion. Igerilekuko eta zabortegiko edukiontzietako tarifak bakarrik falta dira zehazteko. Horiek hurrengo bilkura batean aztertuko omen ditu Udalak.

Aitor AROTZENA | LESAKA

Urriaren 9an, eguerdiko 12:00etan egitekoa zen alkate berriaren karguhartze batzarra. Hau idazterakoan ez dakigu alkate berriak dagoeneko kargua hartu duen (gehiengo osoa, 6 botu behar zituen). Dena den, PNVko Juan Fermin Mitxelena jarduneko alkatea da urriaren 2az geroztik, Koldo Erkiziak orduan gauzatu baitzuen bere dimisioa. Pleno hura Erkizia presidentzian zela hasi zen, baina dimisioa jakinarazi zenean, Mitxelenak hartu zuen mahaiburua. Beraz, ordutik alkate funtzioa behin behinekoz betetzen ari da. Batzar berean, Onineko Fermin Al-tzugaraiak zinegotzi kargua utziko duela jakinarazi zen eta oraingoaz ez



ARGAZKIA: AITOR A.

Matrikulazio kanpainaren aurkezpena

Nafarroako Iparraldeko, Bortzirietako eta Malerreka Euskara Mankomunitateek eta Baztango Udalak, AEK eta IKA euskaltegien laguntzaz antolatuta, alfabetatze kanpainaren aurkezpena egin zen urriaren 3an Onin erreka gainean paratutako agertokian. Ekitaldian, Euskaltegiko eta ikastolako irakasle eta ikasle batzuek prentsako testu labur batzuk irakurri zituzten jendarean. Alfabetatze kanpaina girotzeko bertzeko ekitaldiak izan ziren egun horretan. Goizetik egin zen bideo-rallyan bi taldek parte hartu zuten eta Zura taldeak kontzertua eskaini zuen.

ALVARO LOPEZ
Eskaiola, pladur lanak, sabai modularra, tabikeak
OBRA ZIURTAGIRIAK
LESAKA • 651 704 593

BOZZ-AID
LAVANDERIA
Barrutia, 31. Lesaka
Tel: 948 637 127

IRU BIDE
Enologia - Asakia
Barrutia, 31. Lesaka
Tel: 948 637 127

XATURETXEA
ZABORTEGI
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

USATEGIAK → OSPAKIZUNAK

Igande honetan izanen da Usategietako igandea

Haurrentzako
ikuskizunak
izanen dira

Joseba eta Nerea

Urtero bezala, urriko hirugarren igandea egun berezia izanen da, usazaleek besta handia ospatuko baitute. Goizean goizetik, eguraldiak laguntzen badu, Iharmendiko magaletan jendeparrasta elkartuko da. Ohitura den bezala, oinez eginen du jendeak Usategietarako bidea eta goiza han pasatu ondotik, arratsaldean herrira jaitsiko da besta.

Aurten Detraka antzerki taldearen *Zirkus Mirkus* haurrentzako ikuskizuna izanen da 17:30ean plazan. Altxata Kultur Elkarteak postua paratuko du talo, janari eta edariekin, eta eguna akabatzeke dantzaldia izanen da Jose-lu Anaiak taldearekin.

Sinadura bilketa

Posta zerbitzuan Co-rreosek egin nahi dituen aldaketak direla-eta, Udalak sinadura bilketa abiatu du Luis Antonio Iribarren abokatuarekin kontsultatu ondotik. Si-

nadura idazkariaren aitzinean egin behar da, izen-abizenak, NAN zenbakia, baserria eta auzoaren izena idatziz. Eki-men honen helburua «indar gehiago eginez» Kontsumo Bitartekaritza Batzordera joatea da.

Garbitzaile lanpostua Koro Goienetxerentzat

Urte hasieran paratu zen martxan udal eraikinak garbitzeko behin-behiko garbitzaile lanpostua. Lau pertsonak eman zuten izena eta frogaguztiak pasatuta puntuaziorik onena lortu duena Koro Goienetxe herritarra izan da. Beretzat izanen da lanpostu finkoa.

Krisiaren kontrako ikastaroak

Lan-egoera zaila bizi dutenei zuzendua, bi informatika ikastaro berezi antolatu dituzte Kultur Etxean. Lehenbizikoan curriculumak egiten erakutsiko da (urriaren 21etik 23ra, 16:00etatik 18:00-etara). Bigarrenak *Lana bilatzen Interneten* izena du eta urriaren 28tik 30-era emanen da ordutegi berean. Izena emateko deitu 948 635386ra.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Filmak, kontzertuak eta hitzaldiak Kultur Egunetan

Urtero bezala, Euskara Batzordeak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eta Udalaren laguntzarekin Udazkeneko Kultur Egunak antolatu ditu. Aurten hiru astez izanen dira ekitaldiak, urriaren 16tik 31ra bitartean. Lehen egunean, urriak 16, haurrentzako pelikula bat izanen da Kultur Etxean 19:00etan, *Perez sagutxo* 2. Ondotik, Kultur Etxean bertan 20:30ean, Marimendi emakume taldearen aurkezpena izanen da. *Europako gailurrera espedizioa: Elbrus (5.642 metro)* izenburua duen hitzaldia eskainiko du Mentxu Peña taldeko kideak. Urriaren 23an, ortzirala, iaz arrakasta handia izan zuen txistu-kontzertu pedagogikoa izanen da Kultur Etxean 15:00etan Irungo txistulari bandaren eskutik. Eta azken asterako bertze bi ekitaldi. Lehen urriaren 29an, ortzeguna, 19:30ean. Pello Apezetxea apezak bi liburu aurkeztuko ditu Kultur Etxean: *Etxalarko etxeen izenak* eta *Etxalarko historia*. Lehenbizikoa Pello Salaberriekin elkarlanean egina da. Kultur Egunekin akabatzeke, ohitura bihurtzen ari den bertso-desafio-afaria izanen da urriaren 31n Herriko Ostatuan. Aurten Lesaka Irunen kontra ariko da. Gainera, afaria baino lehen, giroa berotzeko, Muthiko Alaiak fanfarreak bazterrek alaituko ditu.



ARGAZKIA: ANABEL ARBURUA

Zortzi buruko onddoa!

Mendi xokoetan onddoak hasi diren honetan, zortzi burukoa harrapatu du Joxe Mari Arburuak. Ez da egunero horrelakorik ikusten. Bejondeizula!


ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA
Tel: 948 627 514
Beltzo Plaza, 10 · LESAKA

EDARIAK



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

carrho
geotegia olindegia

Proiektuak 25 bako 1948 63 08 99
36700 bera (nabarra) www.sarobe.net

IGANTZI

BESTAK → BUKATU DIRA

Giro ederrean joan dira San Migel bestak

Sei egunez adin guztietako jendeak gozatu du

TTIPI-TTAPA

Irailaren 25ean bota-tako txupinazoarekin lehortu ziren sei eguneko bestak. Tarte horretan denetarik izan zen eta herritar zein kanpotik etorritakoek izan zuten non gozatua: dantzarien saioak, haurrentzako jokoak, pilota partidak, errektadoreak, su artifizialak, herri bazkaria... Baita herri kirolak ere.

Txapelketa ofizialek ikusmina piztu bazuten ere, zer erranik ez gazteek irailaren 26an plantatu zuten herri kirol saio bikainak.

Lehenik zakulari lasterketa berezia egin zuten. Garai bateko kontrabandistek bezala, zubiak zeharkatuz, zerrakuren azpitik pasatuz edo hesiak saltatuz osatu zuten ibilbidea, Peñagarikano eta Irazu bertsolarien aholkuei segituz. Gero, motozerren txanda izan zen eta bederatzi lagunek lehia ikusgarria eskaini zuten. Proba asturiarraren txanda izan zen ondotik: motozerrarekin en-

bor puxka kozkorrak moztu ondotik, hauek aizkoraz pikatu eta txukun-txukun pilatzea. Bukatzeko zaku jaurtiketan ere lehiatu ziren.

Guttienekoa emaitza izan zen, berriz ere gazteek herri kirolerako duten zaletasuna eta grina nabarmendu baitzen. Bertze ekitaldiak ere giro ederrean joan ziren. Hala, guttiago gelditzen da 2010eko Sanmigeltarako.

Gimnasia ikastaroa

Helduentzako gimnasia ikastaroa paratu nahi da martxan. Irakasle batek bere burua eskaini du horretarako eta taldea sortuko balitz hasiko litzateke. Lerro hauek idazterakoan ez genuen izen-emandakoa zenbat ziren zehazterik izan, ez klaseak noiz izanen diren jakiterik ere.

Bi hitzaldi eskolan

Bertze bi hitzaldi eskainiko dira eskolan urriaren 27an eta 29an. Hilaren 27koa *Gatazken konponketa* izenekoa izanen da 16:00etan. Bertzea, berriz, gaztelan izanen da, *Arauk eta mugak* izenburupean. Herrikoia Fundazioko Carmen Nietok eskainiko du bigarren solasaldi hau.



ARGAZKIA: AITOR A.

Ikuskizun bikaina eskaini zuen argazkiko taldeak irailaren 27an.



ARGAZKIAK: AITOR A.

Artzain Zakur Lehiaketako txapela aurten ere Azpeitira

Artzain Zakur lehiaketaren 30. edizioa jokatu zen irailaren 27an Meakaundiko zelaietan, herriko besten barne. Eta iaz bezala, Pello Segurola azpeitiarra eta *Artzai* zakurra nagusitu ziren, 232 punturekin. Bortz artzain eta zakur sailkatu ziren hondarreko probarako, baina *Artzai* izan zen lana bukatu zuen zakur bakarra: artalde hesi borobilera sartu eta ateratzea, alegia. Bigarren postua Amaierko Felix Irigoien artzaina eta *Xatur* zakurarentzat izan zen (205 puntu). Xaturek ardiak sartu bai, baina denboraren barrenean ezin izan zituen ateri. Hirugarren postua, Oiarzungo Mikel Garaia eta *Mendi* lortu zuten (165 puntu). Mikel Aizpuru oiarzuarra eta Juan Mihura lapurtarra ere sailkatu ziren azken saiorako. Aiako Pello Pagadizabal, Oronoz-Mugairiko Jorge Oteiza, Eibarko Jose Antonio Arribillaga eta Jean Paul Irikin lapurtarra ere aritu ziren.

ZUBIONDO
Jatetxea
lagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA

ZJ
Zalain
jatetxea - hostala
14 logela bainu
eta TBrekin
Zalain auzoa 1/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

KULTUR EGUNAK → AZOKA

Baserritarren Egunean parte hartzeko hilaren 23an baino lehen apuntatu behar da

Ekaitza
Elkartek
gonbitea luzatu
die herritarrei

Nerea ALTZURI

Gutti gelditzen da azaroaren 1a ailegatzeko eta Ekaitza Elkar-
tea bertze urte batez, Baserritarren Eguna an-
tolatzen hasia da. Hala ere, egun hau aitzinera
ateratzeko herritar guzi-
en laguntza ezinbertze-
koa denez, azokan par-
te hartzeko gonbitea lu-
zatu die Elkarteak her-
ritarrei.

Baserriko produktu-
ak, eskulanak, nekaza-
ritza erremintak, anima-
liak... Denak izanen di-
ra ongi hartuak. Baina
parte hartu nahi duenak
urriaren 23a baino lehen
eman beharko du izena.
Interesatuak bi telefono
hauetako batera deitu
beharko dute: 678
354244 edo 608 243935.

Gazta Lehiaketan
parte hartzeko ere tele-
fono horietan eman be-
har da izena.

IZEN-EMATEA

Baserritarren Egune-
ko azokan eta Gazta
Lehiaketan parte har-
tzeko telefono haue-
tako batera deitu be-
har da: 678 354244
edo 608 243935.

Kontzertua urriaren 17an

Larunbat honetan,
urriak 17, Udazkeneko
Biraren barne, Toma-
nia musika talde nafa-
rak zuzeneko emanal-
dia eskainiko du fron-
toian, 20:00etan.

Doinu naturalekin
osatutako gaiez horni-
turiko kantu erreper-
torioa du Tomaniak. Gita-
rra, baxua, bateria, es-
kusoinua, flauta eta
ahotsarekin batera,
hainbat herrialdeko
musika tresnak jotzen
dituzte: turkiar flauta,
armonika, nafarroako
gaita, kazoo-a, whis-
tle-a...

Denek gozatzeko
moduko musika, be-
raz.



ARGAZKIA: MIRARI MAIZ

Eskulan eta gimnasia ikastaroak hasi dira

Uda pasatuta, eskolako ikasturtearekin batera ohiko ikastaroak hasi dira. Osa-
sungarria da ariketa fisikoa egitea, eta orduan eta hobe, profesional baten es-
kutik baldin bada. Ba aspaldiko urteetan gure herrian arlo honetan, hainbat
ikastaro ematen dira. Aurten, Ana Larretxea soinketa irakaslea hiru talderekin
lanean hasi da. Astelehen eta asteazken arratsaldetan aritzen dira. Adinekoen
taldean 12 lagun daude eta 17:30etik 18:30era aritzen dira; ondoren, hurren-
go orduan, 18:30etik 19:30 bitarte mantenimendu ikastaroa izaten da eta mo-
mentuz sei lagunek eman dute izena. Hemen bereziki lagun gehiago anima-
tzea nahi dute eta parte hartu nahi izanez gero, eskolara edo Pabloeneara ager-
tzeko adierazi dute. Azkenik, gazteen taldean hamar-hamabi lagun daude eta
19:30etik 20:30era artean aritzen dira. Eskolako gimnasioan astean bi egunez,
beraz, ariketa fisiko gidatua egiteko aukera dago.

Bertzalde, asteartetan, azken urteetan bezala Zahar Txokon eskulan ikastaroa
izanen da. Aste honetan sei lagun Pui iruritar irakaslearekin hasi dira joan den
asteen eginiko bileraren ondotik. 17:30etik 19:30era eskulanak egiten aritzen
dira.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

Tel:
948 634 179
ARANTZA
ATERPE
ALBERGEA - JATETXEA

TOLDOS BAZTAN

Pertsianak • Motorizazioa • Moskitarak • toldoak
Veneciarrak • Estoreak • Gortina bertikalak
PVC eta aluminiozko leiho eta ateak

UDAZKEN NEGUKO DENBORALDIAN
%5eko deskontua toldoetan

Ez galdu aukera eta aprobetxatu leihoak aldatzeko
Gobernuak ematen dituen dirulaguntzak

Tel: 948 631003 - toldosbartzan@nzu.es

SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → ULIBELTZAK ELKARTEA ETA DANTZARIAK

Ulibeltzak Elkarteak eta dantzariak antolatuta besta urriaren 31n

Afarirako txartelak urriaren 24a baino lehen hartu behar dira

Jaione OTXANDORENA

Heldu den urriaren 31rako herri besta prestatu dute Ulibeltzak Elkarteak eta herriko dantzariak elkarlanean.

Goizean haurrendako jokuak izanen dira, arratsadean herriko dantzariak saioa eskainiko dute eta gauean herri afaria izanen da. TTIPI-TTAParen hurrengo alean emanen dizuegu egun horretako xehetasunen berri, baina bitartean, jakin dezazuela, herri afarira joan nahi duenak urriaren 24a baino lehen hartu beharko duela txartela herriko ostaketan.

BAZKIDEEK TXARTELAK HARTU BEHARRIK EZ

Ulibeltzakeko bazkidek ez dute txar-



Ulibeltzak Elkarteko bazkideak 25. urteurrena ospatu zuten.

UTZITAKO ARGAZKIA

telik hartu beharko. Izan ere, joan den urtean Eguberrietan tokatu zen loteriaren diruarekin ordainduko da bazkideen afaria.

Afaldu ondoren Agerralde akordeoilaria alaituko du giroa.

Oharra

TTIPI-TTAParen 502. alean trenbidearen inguruko bilerari buruzko berri bat eman nuen. Berri hartan

akats bat zegoen eta lerro hauen bidez, barkamena eskatu nahi diet trenbideko bizilagunei, akats hori delata eta, sortu ahal izan diren eragozpenengatik.

Bertiz eta Urrutia hirugarren arpanean

Euskal Herriko Maila Nagusiko arpanlari txapelketaren finala jokatu zen urriaren 3an Berriozarren, eta han

izan zen Mikel Bertiz, Xabier Urrutia arraiotzararekin batera.

Etzanda jarritako 60 ontzako enborrean bortz epai, zutik jarritako 54 ontzako enborrean sei epai, etzanda jarritako 54 ontzako enborrean sei epai eta etzandako 60 ontzako enborrean bortz epai 13:47.77ko denboran egin zituzten. Hirugarren gelditu ziren sailkapen nagusian.



Pertsonaia
Unai BERTIZ

Lan txukuna egin du Harri Ttikien Txapelketan

Lehenbiziko aldiz parte hartu zuen Unai Bertizek urriaren 4an Aizarnazabalen (Gipuzkoa) jokatu zen harri txiketako Euskadiko Harri-jasotze Txapelketan, eta lehen aldia izateko hagitx marka ona ezarri zuen. Harri diferenteak erabili zituzten eta hiru minutuko saioa egin zuten bakoitzarekin: 125 kiloko zirlindrikoari 28 jasoaldi eman zizkion; 125 kiloko errektangularrari 25; 112,5 kiloko kuboari 18 eta 100 kiloko bolari 23. Guztira 94 altxaldiegin zituen eta 10.950 kilo jaso. Sailkapen nagusian bosgarrena gelditu zen.

ESTIBALIZ
estetika zentrua

- Diodo laserra
- Osasun-pertsonal kalifikatua
- IZTERRONDOAK 75€
- BESAPEAK 75€

Xalbador, 14 - ELIZONDO - 948 581360
Zazpigerutze, 6 - DONEZTEBE - Maria ileapaindegia

LEURTZA ABENTURA

Puzgarriak festetarako
Segway - BTT
LASER paintball
Despedidak
Eskolarrak

tel. 948 59 20 97
mug. 620 37 96 42
www.leurtza.com

KIROLA → ESKUBALOIA

Inoiz baino eskubaloi talde gehiago izanen ditu Errekak denboraldi honetan

Alebinetan lehen aldiz bi talde izanen dira

TTIPI-TTAPA

Zazpi eskubaloi talde izanen ditu aurten Errekak, inoiz baino gehiago. Izan ere, denboraldi honetan, estreina-koz, alebinetan bi talde berri izanen dira, neska eta mutiletan. Ttikien maila honetan ez zuen inoiz Errekak talderik atera eta aurten lehen aldiz Ligan ariko dira.

ASTEBURUKO PARTIDAK

Liga hasten lehendabizikoak seniorrak izan dira, eta garaipenarekin gainera. Urriaren 4an 12-21 irabazi zuten Uharte-San Antonio taldearen kontra, irudi bikaina emanaz.

Lehen partida kanpoan jokatu ondotik, igande honetan, etxean egingen dute, jubenilek bezala.

Jubenil neskek ligako bigarren jardunaldia jokatuko dute, Itxakoren kontra. Partida 16:00etan hasiko da. Ondotik seniorren txanda izanen da. 17:30etik aitzinera, Burlataren kontra ariko dira. Hauek ere ligako bigarren partida dute. Eta azkenik jubenil mutilen liga-

ko lehenbiziko partida. Lagunak taldea izanen dute arerio 19:00etan hasiko den norgehiagokan.

Bertzalde, Nafarroako Jolasen barne, infantilek eta alebinek larunbatean, urriak 17, jokatuko dute lehen jardunaldia.

Infantil mutilak Uharten

jokatuko dute, hango taldearen kontra. Neskek, ordea, etxean, Uharteren kontra.

Alebin mutilek Itxako izanen dute kontrario eta neskek Burlatan jokatuko duten partidaren Malkaitz.

ENTRENATZAILEAK

Taldez talde, hauek izanen dira entrenatzaileak:

Seniorren entrenatzaileak Dani Urroz eta Iban Ezkurra izanen dira.

Jubenil mutilen arduradunak Juanjo Ramos, Kepa Miguel eta Peio Grazena. Jubenil neskenak Iñigo Etxeberría, Haizea Erkizia,

Pablo Elizondo eta Leire Uterga.

Infantilen kategorietan, mutiletan, Txomin Mindegia eta Pilar Olalla izanen dira prestatzaileak. Infantiletan, baina nesketan, Joseba Legarra eta Pascual Bertiz.

Alebin mutilen entrenatzaileak Juan Teletxea eta Jabierto Almandoz izanen dira, eta alebin neskena Bittori Mendiburu.



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Kontseilariak biribilgune berrira bisitan

Aitzineko ale batean aipatu bezala, eskolaren pareko biribilgune berria erabiltzaileentzako zabalik dago joan den hilabeteaz geroztik. Gastuaren zati haundiena (428.181 eurotik 384.408 euro) Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin egin denez, Gobernuko ordezkariak bisitan izan ziren irailaren 28an. Amelia Salanueva Toki Administrazio kontseilaria, Begoña Sanzberro Landa Garapenerako kontseilaria eta Laura Alba Herri Lanetako Miguel San Miguel alkatearekin eta bertze udal ordezkariarekin elkartu ziren obra berriak ikusteko. Biribilgunea egiteko dirulaguntza ematez gain, bi markesina berriak egiteko Gobernuak 23.097 euroko laguntza eman du (gastua 26.548 eurokoa izan da) eta Ezpelura, Ezkurra eta Bidasoa ibaiak Doneztebeko zatian garbitzea ere subentzionatu du. Argazkian, bertzeak bertze, Salanueva, Sanzberro eta Alba kontseilariak eta udal ordezkariak ageri dira.

'ZUK AUKERATU, ZUK ERABAKI' PROIEKTUA

Nafarroako Kutxaren Zuk aukeratu, Zuk erabaki egitasmoaren barruan Errekak, bertze urteetan bezala, bere proiektua aurkeztu du. Harrera izugarri ona izaten ari da. Horren seinale, orain arte 364 lagunek egin dute Errekaren alde, eta proiektuaren %64a bete da dago.

Gazteen laxoa txapelketa

Unai Sapuppo, Josu Inda, Joseba Grazena eta Aurelio Bertizek Malerrekako Gazteen mailako Laxoa Txapelketako finala jokatuko dute larunbat honetan Oitzen. Xehetasun gehiago hurrengo orrialdean aurkituko dituzue.

BELARRA JATETXEA

Amatza DONEZTEBE - 948 451 306 - www.belarrajatetxea.com

ttipi-ttapa

info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

LIZUN

Etxeako Ardi Gazta

Petxenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 862

ITUREN

UDALA → ALKATETZA

Joxe Mari Gorosterrazuk hartu du berriz ere alkatetza

Mikel Petrirena hilberria ordezkatu du

Arkaitz MINDEGIA

Joxe Mari Gorosterrazu da irailaren 24az geroztik herriko alkatea. Joxe Mari bosgarren aurkeztu zen udal hauteskunderako Eako zerrendetan, baina bera izendatu zuten alkate iraileko batzarrean. Hala, berriki hildako Mikel Petrirena ordezkatu du. Joan den legealdian ere alkate izana zen Gorosterrazu, 2003 eta 2007 urteen artean.

Maika Ariztegi bertzehin txapeldun

Irailaren 26an Iganztziko besten egitarauaren barrean emakumezkoen Euskadiko Txokor-biltze txapelketa jokatu zen eta Maika Ariztegi herritarrek bederatzigarren txapela jantzi zuen. 7 minutu eta 23 segundo behar izan zituzten 50 koxkorrak

biltzeko eta hau izan da emakumezkoen mailan marka berria. Zorionak!

Aurtizko bestak prestatzen

Aurtizko besten pres-taketek aitzinera segi-

tzen dute. Irailaren 10ean Aurtizko elkarte- an egindako bilkuran bestak noiz izanen diren erabaki zen. Aurten San Martin Eguna asteazkenean izanik eta Doneztebako feriak aste berdinean izanik,

hauxe erabakizuten: aza-roaren 4an, ortzegunarekin, hasi eta igandera arte izanen dira baina San Martin Egunean ere ekitaldia izanen dira.

Herritarrek egitaraua zehazten ari dira orain.



ARGAZKIA: MARIA LARRETXEIA

Joaldunak eta dantzariak Orreaga-Zubiri lasterketan

Joaldunen Eguna pasatu ondotik, Iturengo joaldunak Zubirin egon ziren, Orreaga-Zubiri lasterketan. Ez ziren, gainera, bakarrik joan, herriko dantzariak ere han izan baitziren. Lasterketa hasi aitzinetik, dantzariak aureskua dantzatu zuten, eta akitzerakoan, berriz, korrikalariei azken metroak egiten lagundu zieten joaldunek. Sari banaketa egin baino lehen dantzariak euren saioa ere eskaini zuten, tartean, aureskua dantzatzuz.

OITZ

Gazteen laxoa txapelketako finala jokoan larunbatean

TTIPI-TTAPA

Irailaz geroztik partidak jokatu eta jokatu ibili dira Male-rrekako Gazte Mailako Laxoa Txapelketan parte hartu duten pilotariak. Hiru launkotek parte hartu dute, bi **Doneztebe**koak (A eta B) eta bertzea **Oitze**koa. Eta sei jardunaldi jokatu ondotik, ailegatu da egun haundia. Hala, finala larunbat honetan, urriak 17, jokatu da Oitze-ko plazan. Lehia 11:30-ean hasiko da eta **Oitz** eta **Doneztebe** Ako pilotariak izanen dira aurrez-aurre.

FINALISTAK

Oitzeko taldean Andoni Saldias, Lander Mindegia, Laurendi Zelaia eta Ibai Iribarrenek jokatu dute eta **Doneztebe** An, berriz, Unai Sappupp, Josu Inda, Joseba Grazenea eta Aurelio Bertizek.



- Logotipoen diseinua
- Tarjeten diseinua
- Triptikoak, folietak, karpetsak, gutunazalak, fakturak...
- Kartelak, egutegiak
- Irudi korporatiboa

Eskatu aurrekontua konpromisoak gabel!

Andazeta, 12 - 31748 Elizate - Tel: 948 635 638 - kulturkari@ttiipi.net

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- | | |
|------------------------------------|---|
| • Langile autonomoak | • Diru-laguntza ezberdinak |
| • Nekazariak eta mendi langileak | • Kontabilitateak |
| • Nominak eta Aseguro Sozialak | • IVA eta IRPF |
| • Lan-Kontraburako laguntzak | • Errenta altorpenak |
| • Enpresa berri ezberdinen sortzea | • Elbarritasun eta jubilazio espedienteak |
| artekari@artekari.com | • Bidegarritasun planak eta aurrekontuak |

LESABA: Biltzila, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

UDALA → HIRIGINTZA

Mendaur Plana indarrean paratzearekin batera uraren tasak igo egingen dira

Udalak informazio zehatza bidaliko du etxeetara

Fermin ETXEKOLONEA

Mendaur Plana martxan jartzeak hainbat aldaketa ekarriko ditu. Alde batetik, funtzionamenduan, eta bestetik, uraren tasan. Bere garaian aipatu bezala, Mendaur Planarekin, herriatik Aurtizko araztegi berrira eramanen da ura eta han araztutako ura berriz bueltan etorriko da. Baina horrek gastu haundiagoak ekarriko ditu eta horregatik erabaki du Udalak tasak igotzea. Bide batez, ondoko herrietako tasarekin berdinduak geldituko dira Zubietakoak.

Kontsumoaren arabera ordaindu beharko du etxe bakoitzak. Zenbat eta gutxiago gastatu, ordaindu beharrekoa ere hala izanen da. Guztia zehaztuta Udalak etxeetara informazioa bidaliko du eta han azalduko da tasa zenbatekoa den.

Dubaren zain

Ikasturtea akitutakoan, Ibarreneko Duba sorterrira, Saharara, joan zen oporrak pasatzera. Eskola hasterako bueltan etortzekoa zen berriz, baina espero baino gehiago luzatu zaio egonaldia. Badirudi, paper kontu batzuegatik atzeratu dela etorrera.

Euskal dantzen ikastaroa

Joan den igandean,



ARGAZKIA. IZASKUN ZUBIALDE

Giro ederrean Euskararen Eguna

Eguraldiak lagunduta, jai giro ederrean joan zen urriaren 3ko Euskararen Eguna. Besta herrikoia atera zen, kanpotik ez zelako jende askorik hurbildu, baina herri-tarrek ez zuten ongi pasatzeko aitzakiarik eduki. Iragarritako ekitaldiek ez zuten hutsik egin eta jendea gustura gelditu zen.

urriak 11, euskal dantzen ikastaroa egitekoa zen. Goiz eta arratsal-

dez dantzak ikasten pasatzeko zuten parte-hartzaileek eguna,

eta arratsean afaria egitekoa zuten Errandonea ostatuan.

ITUREN

Zure ametsa gaituzten

30 ETXEBIZITZA LIBRE
ETA V.P.O.-AK

VIVIENDAS LIBRES
Y V.P.O.

Elgorriagako bainuetxe berriaren ondoan

Lindutx Baitan, s.l.

Baitan Baitan, s.l.

Baitan Baitan, s.l.

Tel. 948 580 344
www.lindutx.com

Zure etxea, zure bizitza. Te usatu, te eratu

Informa zaitez Baitan eta Ultzamako promozioetaz

DONAMARIA

HEZKUNTZA → 2009/2010 IKASTURTEA

Astearteaz geroztik zabalik dago Liburutegia

18:30etik
20:00etara
egoten da irekia

GINNASIA IKASTAROA ABIAN

Sasoian egon nahi duenak badu aurten ere horretarako aukera.

Urriaren 5az geroztik, gimnasia ikastaroetan ari da hamar laguneko taldea. Astelehen eta asteazkene-

ro frontoian elkartzen dira, 15:00etatik 16:30-era, Daniel irakaslearen aginduetara gorputzak astintzeko.

Iñaki TELLETXEA

Urtero bezala, sasoi honetan, Herri Liburutegiak atekak ireki ditu. Astearte honetan, urriak 13, hasi zen liburutegi zerbitzua eskaintzen, eta hementik aitzinera, astelehenetik ortziralerara 18:30etik 20:00etara zabalik egonen da. Interneteko zerbitzuaz gain, aurten, liburu bilduma berria izanen dugu.

50 urte serorekin

Karmeldar serorak herrira ailegatu izanaren 50. urteurrena ospatu nahi du Udalak. Hori, 2010-ean izanen da. Baina prestaketekin hasia da eta proiektu bat aurkeztu du Nafarroako Kutxaren *Zukaukeratu, zuckerabaki* ekimenean. Laguntza eman nahi duenak 17.419 zenbakia duen proiektua aukera dezala.

DATUA

50

URTE

igaro dira karmeldarrak herrira ailegatu zirenetik eta hori ospatu nahi da.



ARGAZKIAK: INAKI TELLETXEA

Artze auzoko ikuztegia itxuraberritua

Azken urteotan bezala, Udalak langabezia zeuden hiru pertsona kontratatu zituen herrian hainbat lan egiteko. Uda partean aritu dira lan horiek egiten. Horien artean, herrian dauden bi ikuztegi eta bertze lan batzuk egin dituzte. Argazkian ageri den ikuztegia Artze auzoan dagoena da. 1909 urtean eraiki zen eta juxtu mende bat beranduago berritu da.

LANA

%2,66 egin du beheiti langabeziak irailean

TTIPI-TTAPA

Uda garaian, uztailean eta abuztuan langabeziak goiti egin bazuen ere, irailean zertxobait beheiti egin zuen Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emandakoen langabe kopuruak. Zehazki %2,66 jautsi zen, 940 lagunetik 915era. Doneztebeko INEMen bitartez, 557 kontratu egin ziren irailean, baina horietatik 65 bertzerik ez ziren mugagabeak izan. Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko giza-semeetan 413tik 414ra igo zen, adin horretako emakumeen artean, aldiz, 402tik 388ra jautsi zen. 25 urtez beheitiko giza-semeetan 76tik 70era jautsi zen langabe kopurua eta emakumeetan, 48tik 43ra. Lan arloei dagokionez, zerbitzuen arloak dauka, diferentziarekin, langabe gehien, baina zertxobait jautsi egin zen irailean. Abuztu hondarrean 497 langabe zeuden arlo horretan eta irailean 486. Industrian ere sei lagun guttiago zeuden langabezia, 251. Eraikuntzan, aldiz, bi lagun gehiago zeuden langabezia, 121; nekazaritzan bi laguntan beheiti egin zuen langabeziak, eta 16 ziren. Aitzinetik lanik topatu ez zutenen artean zortzi lagunetan beheiti egin zuen langabe kopuruak eta 41 ziren irail hondarrean.

EGUTEGIAK eta BISITA TXARTELAK

Kartulina berezia 300gr. - koloretan bi aldeetatik - Distira akabera

	100	500	1000
Egutegiak-Txartelak	70€	85€	110€

Kulturkari Andutzeta, 12 - 31760 Etobar - Tel 948 635 458 - kulturkari@ttiipi.net

Ez hutsik egin eskaintza berezi hau!



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Herri sarrerako aska zaharberritua.

UDALA → HIRIGINTZA PLANA

Hirigintza Plan berria egiten hasi da Udala

Arkitektuarekin lehen bilera egin du Udalak

Joseba URROTZ

Hirigintza Plan berria egiteko prozesua abiatu du Udalak. Orain dela aste batzuk arkitek-

tuaren aukeraketa egin zen eta dagoeneko udaltxean lehenbiziko bilera ere egin da Jose Ignacio Arribas arkitekturekin.

Hemendik aitzinera, herriak gerora begira dituen asmoak eta beharraz zehazten joanena, eta horretarako herri-



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Euririk ez Sanmiguelan

Azkeneko urteetan eguraldiak ohiturak aldatu dituela ematen du. Lehen Sanmiguelan euria egiten zuen maiz, baina azken aldian egun gehienetan ez du egiten eta aurten, berriz, egun guzietan eguraldi bikaina izan dugu. Hartara, bazkaria eguzkitan egin ahal izan zen. Halere, kanpotik ez zen jende aunitzirik etorri, krisia ote? Beheko argazkia, bertalde, gazteen arteko pala txapelketakoa da.

tarren iritzia ere kontuan hartuko da. Seguraski izanen da astirik, luze joaten baitira gauza hauek.

ASKA BERRITUA

Duela aste batzuk akitu

zen Enplegu Zerbitzuak ematen dituen laguntzeekin kontratatu ziren langileen lan denboraldia.

Dena ongi joan da, eta lan franko ere egin dira. Baserri inguruko labade-

roaz gain, herriko aska eta bere ondoko labade-roa zenaren teiatua ere berritu dira. Hala ere, askan ez da garai batean bezainbat azienda ibiliko ura edaten...

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

Edredoi funda eta nordikoetan adituak

Tafalla, 13
IRUÑEA
948 230 634

ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → TURISMOA

Kide berriak izendatu dituzte Onddo eta Zizen Kofradian

Irujo, Urko, Arrauz eta Argiñano dira

TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, Kofradiaren Eguna egin zen urriaren 4an, eta urtero bezala, ohorezko kide berriak izendatu zituzten. Juan Martinez de Irujo pilotari handia, Urko kantaria, Julian Arrauz mikologoa, Alfonso Salido sukaldaria eta sukaldari ez ezik hainbat arlotan ezaguna den Karlos Argiñano dira kofradiako kide berriak, nahiz eta azken honek ezin izan zuen ekitaldira agertu.

Joan den urtean izendatu eta etorri ezin izan zuen Ramon Arregi Tuterako abokatuak, aldiz, aurtengo ekitaldi-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Aurten eta aitzineko aldietan izendatutako kofradeak.

an hartu zituela bere kapa, zapela eta diploma.

Aitzineko urteetan kofrade izendatutako bertze hainbat pertsona ezagun ere bildu ziren: Juan Ramon Corpas Turismo eta Kultu-

ra kontseilaria; Maribel Garcia Malo Gizarte Gaietarako kontseilaria, Yolanda Barcina Iruñeko alkatearekin Angel Alkain ETBko aktore ezaguna, bertzeak bertze. Alkainek, gainera, kaxu-

la lehiaketa irabazi zuen.

Onddoak dastatzeko gain, bainuetxea ezagutzeko aukera ere izan zuten. Horretarako, plazatik bainuetxera bitarteko bidaxkan barna jo-

DATUA

100

KILO

onddo prestatu zituzten urriaren 3an eta 4an Kofradiako ospakizunen harira

an ziren gonbidatuak.

Arangurengo abesbatzak bere emanaldia eskaini zuen eta Zubietako joaldunek ere egin zituzten beraien harat-honatak, txarangak eta txistulariek bezalaxe.

Gainera, aurtengoan suertea izan zuten, Kofradiako bestarekin batera, onddoaldi ederra izan baita eta honela, urriaren 3an eta 4an, ehun bat kilo onddo prestatu zituzten.

PROMOZIOA

ELGORRIAGA
BALNEARIO - BAINUETXAK

Gure gastronomia dastatu
Gure masajeak gozatu
Itxaso hilean bezala flotatu

Estresa kentzeko ez zara urrutiti joan behar,
gure prezioak eta bonuak kontsultatu

- Igerileku Mineromedizinala
- Saunak eta kontrasteko dutxak
- Flotarium
- Gimnasioa

Programa indibiduala: 25 saio / 300€
Birendako programa: 50 saio / 500€

Baliozkotasuna: 09/10/01-09/12/17ra. Zubiak eta jaiegunak izan ezik. 90 minutuko saioak. 17:00-20:00

Erreserbak: 948 456 045 • reservas@balnearioelgorriaga.com
www.balnearioelgorriaga.com

EZKURRA

MENDIA → ERAKURRIN SEINALE BERRIA

Irudi berria paratu du Leitzako Mendi Elkarateak Erakurrin

Pilotari baten tankerakoa da orain dagoena

Fernando ETXEBERRIA

Erakurri gaínean ora-in arte aizkora eta buzoia zituen irudia ordezkatu egin du Leitzako Guratz Mendi Elkarateak. Zaharra nahiko egoera kaxkarrean zegoen, eta hura kendu eta berria jarri dute: pilotari baten itxura du. Eskertzekoa da leitzarrek izan duten detailea.

Ollinerako bide berria

Ollin parajera joateko bide berria estreina dezakegu dagoeneko, duela aste batzuk akitu baitziren lanak. Lau kilometroko tartean egin dira obrak eta ederki gelditu da. Guztiz atsegin-na da orain hor barna paseatzea.

Lanak eginagatik, obrak egin dituen enpresak Komentzaneko borda gainera bota dituen zuhaitzak erretiratzea ere komeni litzateke.

Egur loteak

Herriarrentzako egur loteak prestatuak ditu Udalak, baina marka-tzerakoan zenbait arazo izan direlako, banaketa

atzeratzea erabaki du. Bere momentuan ematen da horren berri.

Etxebizitza berriak egiten hasi dira

Krisi ekonomikoaren garaian gauden arren, herriko zenbait gazte etxe berriak egiten hasi dira, betirako herrian gelditzeko asmoarekin. Berri pozgarria da, azken urteotan beherakada haundia izan baita biztanle kopuruan. Azken hamar urteotan, adibidez, 50 biztanle gutxiago gara. Gainera, herritarren %70a 50 urtetik gorakoa da eta 18 urtez azpiko zortzi la-gun baino ez daude.

Antza, etxebizitza eraiki nahian, lur eremu-en bila dabilzan gazte-ak ere badira, baina baldinuzki prezioak oso altuak direla. Gaian aditua den batek esan digunez, metro koadroaren prezioa 20, 30 eta 60 euro artean dabil, tokiaren arabera. Aipatzekoa da, herritik kanpo etxea eraikitze-ko 1.500 metro koadro exijitzen dituela araudiak.

LURREN PREZIOA

Lur eremuetan metro koadroen prezioa 20, 30 eta 60 euro artekoa da.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Erakurrin leitzarrek jarri duten ikur berria da argazkikoa.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Erreka zeharkatzeko zubia hautsita

Malotik hurbil eta Lazkano edo Mariezkurrenako bordetik metro batzuetara dagoen errekan, alde batetik bestera pasatzeko zubi txiki bat zegoen orain arte. Baina asmo txarreko batek bota egin du. Hortan ez dago zalantzarik, egur eta oholak bere tokitik atera eta uraren korrontearen aldera paratu baitira. Halere, jende ona ere badagonez, behin behineko ohol bat paratu du norbaitek pasatu ahal izateko.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ezkurratik ere omenaldia jaso du Mindegia

Aurreko TTIPI-TTAPAN aipatu bezala, irailaren 12an Zubietaren omenaldia jaso zuen sortzez Ezkurrakoa den Mikel Mindegia. Hiru ordu inguru iraun zuen ekitaldian, hainbat oroigarri eta opari jaso zituen omenduak, eta tartean Ezkurrako bere senitartekoen eskutik. Argazkian eurekin ageri da.

Kulturrakia
diseinugratiak

Laguntza diseinua
Tarteak diseinua
Irudiak, irudiak, kargak,
guztizak, fakturak,
Kartak, egutegiak
Irudi korporatiboa
Eskutik aurrekontua konprentseko gabe!
Mendak 10. 2009.10.15. 10. 2009.10.15. 10. 2009.10.15.

ARESO

EHIZA → POSTUEN ENKANTEA

19.000 euro jaso ditu Udalak ehiza postuen enkantetik

Ehiza postuetan garestiena 3.168 eurotan atera da

Juana Mari SAIZAR

Guztira 27 ehiza postu banatu ondotik, Udalak 19.000 euro hartu ditu aurreko postuen enkantea egin ondoren.

Horien artean, merkeena 97 eurotan atera zen eta garestiena, berriz, 3.168 eurotan. Dena prest dago, beraz, ehiztarientzat.

Txiki-txikitatik ingelesez

Aurtengo ludotekan berrikuntza bat edukiko dute herriko haurrek. Hala, lehengo eran ikastaroa euskaraz izan beharrean, ingelesez jolastu eta heziko dira. Saio hauek lehengo asteartean hasi ziren eta sikomotrizitatekoak ere hasiak dira.

Ohar bezala, helduentzako ikastaroak ere jarri nahi dira martxan eta herriko jendeari hauetan parte hartzea animatu nahi zaie, ea horrela taldea osatzen den.

Gaztain bila ateraldia

Guraso Elkarteak udazkeneko ekintzak antolatzen hasia da jada. Eta laister irteera bat izango da: gaztain bila joan eta ondoren hauek jateko proposamena egin du.

ALDAKETAK GURASO ELKARTEAN

Bestalde, Guraso Elkarteak zuzendaritzan zenbait aldaketa izan dira. Izan ere, lehengo kargudunek beren postua utzi behar izan dute arazo pertsonalen ondorioz.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Hasi dira onddoak!

Udazken garaia ailegatu zaigu eta horrekin batera onddoen sasoia ere bai bete-betean. Badirudi aurtengo honetan asko dagoela, nahiz eta tamainaz txikiak izan. Mendira joaten den oro baten batekin itzultzen da etxera eta tarteka pieza ederrarekin gainera. Goian ageri den bezala, Eguzki-aldeko Carmenek 900 gramoko onddoa bildu zuen eta beste biak, berriz, Arraioko Joxepik bilduak dira. Hauetako baten zurtainak 37 zentimetroko luzera eta 7 zentimetroko diametroa du.

ARANO

HEZKUNTZA → IKASTAROA

Kontzejuko ganbaran haurrentzako txokoa egokitzea nahi dute gurasoek

Euskara Zerbitzuak 600 euro emanen ditu

Kontxi KLABER

Udako oporaldiaren ondoren, hainbat ekimen jarri dira martxan Kontzejuko ganbaran. Esate bateko, ostegun ilu-

nabarretan bertsolari batzuk elkartzen dira Bertsolari Txapelketa Nagusiari begira. Hala nola, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze... Eta hemen aritzen dira presaketetan.

Bestalde, urriaren 5ean, herriko emakumeek aerobik klaseari ere hasiera eman zioten. Georotik, asteen bi egunez



UTZITAKO ARGAZKIA

Aerobik ikastaroak asteen bitan izaten dira, astelehen eta ostegunetan.

elkartzen dira, astelehen eta ostegun ilunabarretan. Oraingoan, jendegutxi animatu da eta besteren bat egingo balitz esku zabalekin hartuko lukete. Animo, beraz!

Baina bada oraindik egiteko dagoen gauza

bat ere. Haurtxoen gurasoak ahaleginak egiten ari dira ganbarako antolakuntza egokia izan dadin, hartara, umeek tar-

te onak pasa ditzaten. Horretarako material aproposaren beharra ikusten da: koltxonetak

eta beste hainbat material didaktiko.

Guraso batzuk alkaterekin harremanetan jarri dira eta Udalak bideratuko du Euskara Zerbitzuak emango duen 600 euroko dirulaguntza.

GOIZUETA

UDALA → HIRIGINTZA

Zubi Haunditik Zibola bitarteko eskoileraren proiektuari baietza eman dio Iruñeak

Goiko Landa uholdeetatik babesteko balioko du

Esteban AROTZENA

Azken bizpahiru hilabete hauetan berri onak heldu dira Iruñetik, ekonomiari dago-kionean, behintzat, herriaren etorkizunerako Udalak estrategikotzat jotzen dituen bi egitas-mori baietza eman baitie Nafarroako Gobernuak.

Herritarrek ongi dakiten bezala, Zubi Muxuko aterpetxeko obrak aurten hasiko dira, baina honi buruzko zenbait berri interesgarri hurrengo alean emanen ditugu. Hau garrantzi haundiako azpiegitura izanik, Iruñeak egun hauetan onartu duen Udalaren beste proiektu batena ez da gutxiagorako. Goiko Landa urbanizatzekotan Zubi

Haunditik Zibola bitartainoko eskoilera egin behar da planeamenduko arau subsidiarioek diotenez. Hau jakinik, Begoña Sanzberro kontseilari den Departamentuko goi karguekin bildu da alkatea behin eta berriz, 134.550 euroko kostea duen proiektua onartu dioten arte. %70eko subentzioa jasoko du Udalak, baina 125.140 euroena, hau da, 87.600 euroa.

JABEEKIN BILERA

Balizko uholdeen arriskutik kanpo geldituko da Goiko Landa 2010etik aurrera. Beraz, alde horretatik behintzat, ez da inolako arazorik izaneren Planeamendu Urbanistikoak aurreikusten dituen mota guztietako etxeak eraikitzeko. Eremu horretako, Goiko Landako lurren jabeekin, bilduko da Udala honen berri emateko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Arantzara mendiz lagun giro ederrean

Eguraldia lagun, egunpasa paregabeaz gozatzeko aukera izan zuten irailaren 26an Arantzaraino oinez joandako herritarrek. Umore Onak antolatu zuten mendi irteera hau.

Azaroko feria

Heldu den azaroaren 28ko ferian edozein eratarata parte hartu nahi dutenek (aziendak, eskulanak edo tresna zaharrak plazaratuz, salmenta postuak paratuz...) azaroaren 13a baino lehen eman behar dute ize-na Herriko Etxean.

UTZITAKO ARGAZKIA

Edozein motatako produktuak saldu daitezke ferian. Begira, esate baterako, Antokako Malenek iaz plazaratutako ontto otarrea.



behetik
Añorga-Ixiki, 14 behea
T. 943 368 781
671 073 888
www.behetik.com

Eskailerak igotzea... ez da oztopo!



plataformak • igogailu bereziak • ahulki bereziak...

LEITZA

UDALA → HIRIGINTZA

Lopeneko arkua Perurenatarren museoan jartzea erabaki du Udalak

EAk, ordea, arkua herri erdian paratzea nahi du

TTIPI-TTAPA

Herriguneko trafikoa arazoak saihesteko, eta bide batez, ibilgailu haundiei bidea errazteko, Elbarren kaleko biribilgunea haundiago batekin ordezkatzeko erabaki du Udalak. Lanak duela aste batzuk hasi ziren, eta urte bukaerarako eginak egonendira. 206.000 euroko aurrekontua dute eta Udalak eta Nafarroako Gobernuak ordainduko dute.

Biribilgune berriarekin

orain arte hor egon den arkua tokiz aldatu behar izan da. Eta horrek eztabaida sortu du.

Hainbat aukera ibili zituen Udal Gobernu Taldeak esku artean arkua-ekin zer egin jakiteko. Hala nola, udaletxe atzeko baratzetako batera eramatea proposatu zuen, eta han parke bat egitea. Baina aukera honek «luze» joko lukeelakoan, azkenean, Iñaki Perurenaren museora eramatea erabaki da, Perurenak berak hala proposatuta. Horrela baieztatu digu Xabier Zabalo alkateak. Eta trukean zera eskaini du Perurenak: hurrengo bi urtetan, hilabeteen bi asteburutan museoa za-

baltzean, herritarrek sarriera dohainik izanen dute.

KOKALEKU BERRIAREKIN EZTABAIDAK

Erabakia, baina, ez da denen gustukoa. EAK, ohar bidez, Lopeneko arkua berriz herri sarrerako biribilgunean jartzeko eskatu dio Gobernu Taldeari eta bertan ez jartzeko alkatearen erabakia politikoa dela uste du, «ez baitio inolako irizpide teknikorik erantzuten».

Arkua biribilguneetik zaldiak bazkatzeko erabiltzen den udaletxearen atzealdeko baratzera eraman eta parkea egiteko proposamenari buruz zera adierazi du EAK.

«begi onez ikusten dugu parkea, baina abstenitu eginginen, nahiz eta ANVk gehiengo osoa izan eta erabakia bere esku izanen zuela jakin».

Parkea egiteari dagokionez, «urte bukaera baino lehen proposamen finkoa eta arkuaren kokapenarekin zerikusirik ez duena aurkeztean bada» EAK «zalantzarik gabe» babestuko duela adierazi du.

Bigarren mikologialdia

Aurten bigarrenez, mikologialdia antolatu du ALKE Altzadi Kultur Elkartek, Udalaren eta Mendibil Mendi Taldearen laguntzarekin.

Urriaren 19tik 23ra herritar taldeek, sailetan, onddoak eta zizak bilduko dituzte. Haurrek, euren aldetik, marrazkiak egingen dituzte eskolan. Urriaren 24an, larunbata, 09:30ean haurrek mendi ateraldia egingen da onddo eta zizak bildutako onddo eta zizen sailkapena egingen da.

Urriaren 25ean, azkenik, 11:00etatik aurrera erakusketa mikologikoa egingen da Karrapen, eta eskolako haurren marrazki-lehiaketako irudikare ikusgai egonendira. Antolatzaileek sarpresak iragarri dituzte.

FLASH

Nazio mailako Gazte Eguna larunbatean

Gazte Independentistek 30 urte antolatzen eta borrokatzen; 30 urte ta independentzia lortu arte! lelopean Euskal Herri mailako Gazte Eguna antolatu dute larunbaterako, eta Leitzan egin dute hitzordua.

Aurkezpen ekitaldian azaldu zutenez, «urte luzeetan borrokaren bidez lortutakoa ospatu, baina bereziki, aurretik ditugun erroreak berriei gogoz ekin ahalizateko, urte haueetan guztietan gazte erakundeetan lan egin, esku kolpe bat bota zein inguruan ibili diren guztiak» gonbidaturik daude Gazte Eguna.

Ekitaldi honekin Jarrairen sorreraren 30. urteurrena ospatzeko asmoa dute, «ez baita makala azken hamarkadetan eginiko bidea: emandako urratsak eta izandako lorpenak». Helburu horrekin egun osorako egitaraua prestatu dute.

EGITARAUA

- 11:00etan: harrera eta zintzur bustitzea, animaturik.
- 14:00etan: bazkaria.
- Arratsaldean: karaoketa: *Kantatzen duen herri bat ez da inoiz hilko* lelopean.
- 20:00etan: kontzertuak: Egurra Kitto, Skatu eta Itziarren Semeak taldeen eskutik.
- Eguerditik iluntzera: haurrentzako txokoa.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Aurrera Egunean kirola eta jaia

Eguraldi ederraren laguntzarekin ospatu zuten urriaren 3an Aurrera Kirol Elkartearen Eguna. Bazkideek, eta oro har herritarrek, hainbat ikuskizunetaz gozatu zuten herriko plazaren inguruan. Goizean haurren guneak nagusitu ziren. Elkarteko balkoi batean tirolina jarri zuten antolatzaileek, haur ausartentzat. Eskalatzaileentzat rokodromoa eta animalia zaleentzat zaldian itzuliak emateko aukera. Batetik bestera ibili zenik ere izan zen. Bien bitartean, plazako frontoian, Aurrera Pilota Eskolako ikasleek pilota saioa eskaini zuten. Aurrerako dantzariak ikuskizun bikaina eskaini zuten eguerdian. Karrapen bazkideek bazkaria egin zuten ondotik, eta arratsaldean, ingurutxo dantzatu zuten. Incansables txarangaren eskutik poteoa ere egin zen gero.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa · saneamendua · gasa
Tfn: 948 510 086 · 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

INGURUMENA → ONDDO SASOIA

Inguruko bizilagunek bakarrik bildu ditzakete onddoak Bertizko Jaurerrian

Joan den urteko araudiak horrela dio

TTIPI-TTAPA

«Inguruko bizilagunei soilik utziko zaie basoko produktuak biltzen, beti ere, etxeko kontsumorako». Halaxe dio Bertizko Jaurerriko araudiak. Horren arabera, Bertizaranako herri-tarrek (Oieregi, Narbar-te eta Legasa), Etxalar-koek, Baztangoek, Sun-billakoek, Elgorriagako-ek eta Doneztebekoek bakarrik dute Natur Par-kean produktuak –tar-tean onddoak– biltzeko baimena.

Berria ez da orain-goia, joan den urteko ekainaren 17an onartu baitzuen Nafarroako Gobernuak, Foru De-kretu bidez, Bertizko Natur Parkea Zainketa Bereziko Eremu dekla-ratzea eta hura erabili eta kudeatzeko III. Plan Zuzentzailea egitea. Araudi orokorren 18. ar-tikuluari ageri da aipa-tutako muga hori.

Iazko denboraldia onddo aunitzik atera ga-be joan zenez ez zen arazorik sortu, baina aurten onddo dezente ateratzen ari da, eta jen-deak sorpresan hartu du erabakia, batez ere, kanpotik etorritakoek. Basozainek Natur Par-kean onddo bila joaten direnei nongoak diren galdetzeko eskubidea dute, horrela, onddoak edo bertze produktuak nork bildu ditzakeen ikusteko.



BAZTANBERRI PLAZA Elizondo

ETXEBIZITZA LIBREAK

28.000.000 Pta.tik aurrera BEZ barne
168.290 €tik aurrera BEZ barne

3 GELA + GARAJEA + GANBARA

Mendinueta, 6 behea · T. 948 580 304 · info@jbiturria.com
www.jbiturria.com

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → SAGARDOA

Kirikoketa Bestaren hamargarren besta eginen da urriaren 24an Arizkunen

Bazkalondoan kirikoketariak, txalapartariak, albokariak, dantzariak... izanen dira

TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPAren aitazineko alean iragarri bezala, aurtun hamargarren aldiz Kirikoketa Besta eginen da urriaren 24an Arizkunen. Jo ala Jo Kultur Taldeak egun osoko egitaraua antolatu du aldi hone-tan ere.

EGITARAUA

• 11:00etan Gamioxarra dolareko irekiera: sagardoa modu tradizionalean eginen da, XVIII. mendean egiten zen bezala. Horrekin batera, sagar jotzea, patsa prentsatzeta eta zuku kupelaratzeta.

Nafarroako sagardoak dastatzeko eta pintxoak jateko aukera ere izanen da.

- 14:30ean zikiro jatea Arizkungo frontoian.
- Bazkalondoan: Baztango kirikoketariak, Amaiurko txalapartariak, Iparraldeko txalapartariak, Algortako albokariak, Fanfarremifa taldea eta dantza herrikoiak.
- Arratsean kontzertuak: Komando Kastaña taldea eta sorpresaren bat.

Gas naturala laster etxean

Lesakatik Elizondoraino doan gasbidekolonetan bi milioi eurotik goitiko gastua egin du Gas Navarra enpresak Baztanen.

Arraioz, Elbete, Elizondo, Irurita eta Oronoz-Mugairiko 1.600 herriarregana ailegatuko



ARGAZKIAK ETA TESTUA: MAITE OTEIZA

Eskola ttikien eguna aldarrikapenez betea

Bigarren urtez Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango Herrietako Eskolak euren besta ospatu zuten urriaren 4an. Amaiuren hasiz, aurtengo hitzordua Iruritan izan zen. Hala, herrietako eskolen garrantzia eta Iruritako eskola berriaren beharra aldarrikatu ziren. Goizean Iruritako Erreboteko plazatik abiatuz, Gartzaín, Elixoto, Apote eta Ordokin ibili ondotik, berriz ere, Erreboteko plazara bueltatuz ibilaldi koloretsua egin zuten. Haurrendako jokoen gibeletik, bazkaria egin zen eta akordeoiaren musikarekin, Zugarramurdi-Urdazubiko eskolari lekukoa eman zitzaion 2010eko besta antolatzeko. Aipatzekoa da, aurtengo bestak aldarrikapen berexia zuela. Izan ere, Iruritan hurrengo ikasturterako eskola berriaren behar larria dago. Heldu den kurtsorako, gaur egungo instalazioetan lekurik ez dago, eta gainera, Elizondon, asteazkenetetan elkartzen diren herrietako haurrendako ere ez da lekurik izanen.

da gas naturala eta joan den astean Elizondoko kiroldegian egindako aurkezpenean iragarri zuten, laster izanen da

zerbitzua etxeetan.

Aipatu aurkezpenean Gas Navarra enpresako ordezkariak eta Virginia Aleman alkateak

parte hartu zuten.

Baztan-Bidasoa osokan, Gas Navarrak zortzi milioi euroko inbertsioa eginen du.

H. LOPEZ

FONTANERÍA • ITURGINTZA
Santiago 93, Elizondo • Tel. 948 452 126
www.honestolopez.com

MOBLEAK
417€tik hasita
+ BEZa

KAMERINDAK
75€tik hasita
+ BEZa

MANPARAK
250€tik hasita
+ BEZa

HIRIGINTZA → AHOLKULARITZA

Hilabetean bi aldiz Balleko Etxean egonen dira Nasursako teknikariak

Hilabeteko lehen eta hirugarren asteartetan

TTIPI-TTAPA

Urriaren 6az geroztik, Nasursa enpresak Balleko Etxean ere eskaintzen du etxebizitza eta hirigintzako aholkularitza teknikoak. Hilabeteko lehen eta hirugarren asteartetan, 8:30-etik 12:00etara izanen dira aholkulariak udaletxeko bigarren solairuan, hirugarren bulegoan. Hurrengo hitzorduak urriaren 20an, azaroaren 3 eta 17an eta abenduaren 22an izanen dira.

21 HERRI ETA 12 UDALEKIN LANEAN

Etxeak eraberritzeko dirulaguntzak kudeatu eta Udalei hirigintzari buruzko aholkularitza teknikoak ematea dira Baztan-Bidasoako Nasursaren helburuak. Nafarroako Gobernu



ARGAZKIA: ONDIKOL

100 urte bete ditu Maxima Arretxea gartzaindarrak

Gutti dira ehun urte egitera ailegatzen direnak, baina Maxima Arretxea Arretxea gartzaindarra horietako bat da. Irailaren 28an mendeurrena bete zuen. Gartaingo Etxabarren etxean jaioa, Aldekoan bizi da gaur egun, eta lehenbiziko mendeurrena ospatzeko, seme-alaba, biloba eta birbiloben ondoan pasatu zuen eguna. Osasun onean dago Maxima eta memoriak ere ez omen dio hutsik egiten. Mugikortasun arazo batzuk ba omen ditu, baina ehun urtera ailegatuta itxura ona duenik ezin ukatu. Aunitz urtez Maxima!

Etxebizitza eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren mende dagoen enpresa publikoa da eta Nafarroan 1999an sortu bazen ere, joan den urtean ailegatu zen eskualdera. Gaur egun, Doneztebeko

Merkatarien Karrikan du bulegoa, udaletxe parean. Baztan-Bidasoako 21 herritako bizilagunentzat ari dira lanean, eta 12 udalekin hitzarmenak ere eginak dituzte hirigintza kontuak kudeatzeko.

Alkoholiko Anonimoak-en hitzaldia

Alkoholiko Anonimoak elkarteak hitzaldia eskainiko du urriaren 24an Arizkunenea Kultur Etxean. 19:30etik 21:00etara izanen da.

FLASH

Lander Santamariak zinegotzi kargua hartu du

Urriaren 5az geroztik, Lander Santamaria Nabaiko zinegotzia da. Iragarri bezala, Miguel Angel Garaioak utzitako hutsunea beteko du eta oraindik guztiz zehaztua ez badago ere, baliteke kirola, gizarte ongizate eta osasun kontuetaz arduratzea. Honenbertzez, Diario de Noticias egunkariko lana momentuz alde batera uztea erabaki du.

Txokotoko Fermin Anapeh-eko lehendakari

Elizondoko Txokoto ostatuko Fermin Fernandez izendatu dute Anapeh Ostalaritzako Enpresa Titikien Nafarroako Elkarteko lehendakari. Azken 14 urteotan karguan egon den Jesus Tato Rios ordezkatu du.

Eskisaroi
Jaiak
Jaime Urrutia
Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

SOULE
hileta artea
Tfnoa: 948 432 444
Mug. 929 804 543
ARIZKUNEA

ttipi-ttapa
• Paperezko edizioak
• Hemerroteka
• Egunkeri berriak
• Agenda
• Merkatu titkia
• Eguraldia
• Urtebetetxoak...
www.ttipi.net

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak - Etxeko giroa
Burrutxak aurten - Tfnoa: 948 582 043
ORONÓZ - MUGAIRI

ttipi txartela^{rekin} beti irabazten da

DESKONTUAK · ZOZKETAK · ALDIZKARIA MUSUTRUK



ttipi txartela egiteko edo zozketetan
parte hartzeko deitu **948 63 54 58ra**.
Asteheneretik ostiratera 09:00 - 18:00.

ZOZKETAK



EUSKAL JOLASEN BILDUMA
CD-ROM

Kastalen Eskola
www.kastala.net



KAMISETA + CDa

Bide artzean
www.bideartzean.com



MAHAI-JOLASA

Urtentza eskola
www.urjentza.org



LIBURUAK

Ekar Argitaletxea
www.ekar.com



Oninart

2 KAMISETA

Oninart
www.oninart.com



JANTZIA

Txapela buruan
www.txapelaburuan.com

SARIDUNAK

ttipi txartela

- LIBURUAK (Ibaizabal)
Adela Arlegi (Bera)
- LOTEA (Martika)
Miren Gola (Dioniz-Mugari)
- CD+CDROM (Urtentza)
Izaskun Zubizarbe (Zubizarbe)
- LOTEA (Pieritz, Porrotx eta Marinetots)
Estibalde Arratxe (Hondarribia)
- KAMISETAK (Oninart)
Aitorre Union (Lapasa)
- KAMISETA (Txapela Buruan)
Sara Bolechena (Donamaria)
- Fausti Juanikarrena (Zubizarbe)

ttipi saskia

- 2 SARRERA (Artile izotz jauregia)
Aizara Arribas (Iruña)
- 2 SARRERA (Donostiako Agurakuma)
Maritxu Bolarrena (Erratzu)

DESKONTUAK



%10eko deskontua




%10 Produktuetan



• KIROLRE ZELA
%10eko deskontua



• FORD
%5 errekarabaztea



%10. 30000 gogoratu geroztik

ttipi saskia

Bidali SMSa **5767**ra TTIPi SASKIA eta zure IZEN-DEITURA idatziz
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE



Zozketan parte hartzeko egiteko urtararen 30a baino lehen, irabazlearen izena urtararen 20ko aldirikoa argitaratuko da.
Mutilak irabazteko 1 JOKE BEZ gabe. Zure izena ttipi-ttapaen Twitterren gordeta dago argitaratzeko
izeneri zure izenaren berriz ezin duzu irabazteko. Zuzeneko edo deusezpenezko bide egiteko deitu 948 63 54 58ra.

ZUGARRAMURDI

TURISMOA → KARLISMOAREN IBILBIDEA

Karlismoaren ibilbideko plakak gertaera historikoak bildu ditu

1873an Karlos VII.a herrian izan omen zen

Koro eta Margari

Udatik hnat plaza-ko Elizargietetako parretan Karlismori buruzko plaka bat jarrita dago. Izan ere, aitzineko ale batean aipatu bezala, Nafarroako Gobernuak Karlismoari buruzko ibilbide turistikoa egin du eta zati bat Zugarramurditik pasatzen da.

XIX. mendean Karlisen hiru gerla izan ziren, eta zoritxarrez gure herri hauek hurbiletik bizitu zituzten. Zugarramurdin jarrita dagoen plakak, adibidez, 1873.urtean Karlos VII.a herrira etorri zela adierazten du. Elizan meza entzun omen zuen, eta ondotik Atxurian zegoen gotorlekura gan omen zen.

Gisa honetako bertze argibideak Bera, Etxalar eta Elizondon ere paratu dituzte. Bertzalde, aipatu, Na-



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Hauxe da plazan ageri den kartela.

farroko Gobernuak egin dituen bertze ibilbide turistikoaren artean, bat sorginkeriarena dela eta hau ere Zugarramurdi eta Urdazubitik pasatzen dela.

Gisa guztietako ikastaroak

Gaztainak, geltxaurak, eta onddoak ailegatu diren bezala, ikastaroak ere hemen ditugu.

Irail hasieran kenpo kaikoa hasia zelaren

berri eman genuen, eta urri hasieran bertze haurtik ere martxan paratu dira:

Alde batetik, pilates eta aerobik klaseak hasi dira. Lehen astartetan izaten da eta bi taldetan banatuta egiten dute. Aerobik, berriaz, ortzegunetan da, eta hau ere bi taldetan banatuta izaten da.

Trikititxa eta panderoa ikasterik ere bada. Astartetan eskaintzen dira klaseak, hiru talde-

tan. Eta haurrendako euskal-dantzak larunbatetan Saran ematen dira. Zugarramurdi eta Urdazubitik 14 haur gaten dira.

Finitzeko, erran, bile- ra batean erabakitzea zela yoga ikastaroa emateko nahiko jende ote zen ala ez.

Aipatzekoa da ikastaro hauek guztiak Urdazubi eta Zugarramurdiren artean antolatzen direla, bi herrien arteko harreman onari esker.

FLASH

laz baino bisitari gehixeago udan

Sorginen Museoa eta leizeak udako denboraldia itxi eta ohiko ordutegira bueltatu dira urriarekin batera. Uda-ko balantzea eginez, 2008koan baino bisitari gehixeago izan dira bi kasuetan. Leizeetan 30.032 pertsona sartu dira uda honetan, 2008an baino kasik mila lagun gehiago. Sorginen Museoa igoera ikusgarriagoa izan da, %14,50koa. Joan den udan baino 1.428 lagun gehiago sartu dira museoa, 9.911 guzira.

Espero bezala, abuztua izan da bisitari kopuru handieneko hila- bete: 16.130 sarrera izan dira leizeetan, eta 5.109 Museoa. 2008-arekin konparatuz igoera handieneko hila- bete ere abuztua izan da: 1.223 sarrera gehiago leizeetan eta 1.060 sarrera gehiago Museoa. Uztailen 8.450 lagun sartu ziren leizeetan eta 2.644 Museoa. Irailen, ordea, jautsiera nabarmena izan da leizeetan, 5.452 sarrera saldu baitira, baina Museoa uztailera kopuru beretsua mantendu da, 2.158 bisitarirekin.

MONTXO OSTATUA

Dantxarineatik 2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • URDZUBI
Egunero irakia 10:30etik 02:30era

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfn: 948 453 403
31713 ARIZKUN

SARA

FUTBOL TXAPELKETA → DIRU BILKETA

Urriaren 31n futbol txapelketa jokatuiko Seaskako Integrazio Batzordearen alde

Txapelketaren ondotik zikiro jatea eginen da

Xan HARRIAGUE

Atxuri Urdin Errealaren Peña, Gaztetxea eta Olhain ikastolak bat egin dute urriaren 31n futbol txapelketa antolatzeko. Egun osoan bilduko diren irabaziak Seaskako Integrazioa Batzordea-entzat izanen dira. Batzorde horrek «ezberdinak» diren haurren integrazioa laguntzen du Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuako Ikastoletan.

Gaur egun 25 dira laguntza behar dutenak eskola beste guztiekin batera segitu ahal izateko. Laguntza eta lagun-tzaile behar horrek gas-

tu gehiago dira Seaskarentzat eta Frantziako bostere publikoek haien gain ez dituztelako hartzen Integrazio Batzordearen aldeko hainbat ekimen egiten dira han hemenka. Horren kariatara, joan den urtean errugbi taldeak txapelketa antolatu zuen Animainean.

Aurten, aldiz futbola izanen da. Txapelketa 09:00etan hasiko da kiroldegian. Sailkatzeko partidak jokatu dira eta arratsaldean denak batera piknikatu eta gero finalaurdenak, finalerdia eta finalak jokatu dira.

Txapelketa irekia izanen da, baina antolatzaileek taldeen kopurua mugatuko dute. Beraz, talde baten izena eman na-



ARGAZKIA: PANPI AXERITOGARAI

Larrungo treneta eta leizeak

Krisi ekonomikoak ez du halako eragin handirik izan Larrungo trenetan eta leizeetan. Uztaila eta agorrilean 160.571 lagunek hartu dute Larrungo treneta, iaz baino 687 gehiagok. Bi hilabete horietan leizeetatik pasatu direnak 53.500 izan dira, joan den urtean baino %6 gutxiago. Baina Francois Pouyet leizeetako zuzendariak dioenez, 2008a biziki urte ona izan zen uholdeengatik hainbat hilabete hetsita egon eta gero berriz ireki zutelako. Batek bertzeak baino jende anitzez gehiago hunkitzen badu ere, Herriko Etxeari etortzen zaizkion etekinei dagokionez, berdintsu ibiltzen dira, Lezeak Herriko Etxeak berak kudeatzen duelako eta Larrungo treneta, berriz, Frantziako enpresa handi batek. Azken honek dituen irabaziekin konparatuz oso gutxi da herrira etortzen dena. Egia da, udan 30 langile dituela, baina haien artean gehienak sasoinetakoak dira bakarrik, eta beraz, kontratu laburrak baizik ez dituzte. Urteka direnak hamar bat bakarrik dira, oso zenbaki txikia kontuan hartuz Frantziako enpresa horrek mugitzen duen diru andana eta neguan trenbidearen konponketa lana hemengoa ez den enpresa bati ematen diola. Berez, Larrungo treneta Paueko Kontseilu Orokorrenarena da eta Frantziako enpresa horri eman zion hura kudeatzeko baimena hainbat urtez, baina kontratua aurten bukatzen da, eta ikusteko dago nori emanen dion hainbeste diru mugitzen duen, baina gure herrian ondorio gutxi duen altxor horren heldu den urteetarako kudeaketa.

hi dutenek hobe dute lehenbailehen deitzea zen-

baki honetara (0033) (0)670077656 (Joanes).

Arratsean zikiro jatea izanen da.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

AZPIEGITURAK → TREINBIDEA EGIN NAHI DA HERRIAN BARNA

Komunikazio estrategia aldatu du RFFk baina ez bere proiektua

‘EZ AHT’ idatzi dute Larrunen iratzearekin

Franck DOLOSOR

Senpere eta Azkaineko eremuak zeharkalitzearen abiada haundiko trenbide berriaren proiektuak zer erran haundia piztu du hego Lapurdin. RFF konpainiak xehetasun guti eman du orain arte baina komunikatzeko modua arrunt aldatu du, kurioski, herri-
tar eta hautetsiak mugitzen hasi eta.

RFFko arduradunek Iparraldeko hautetsiak gomitatatu dituzte berriki Baionako su prefeturarat. Christian Maudet RFFko buruzagietatik bategi esplikatu du oraingo trenbidea hobetuko dutela, linea berria egiteko ikerketak segituko dituztela eta begiratu dutela CITEC enpresak egin duen txostena.

Ikerketa hunek dio trenbide berria egitea ez dela hain beharrezkoa urteak eta urteak pasako baitira oraingo tren-

bidea bete-betea izan aitzin. Orain den trenbidea hobetzea aski dela gomendatzen du Suitzan egin den ikerketa independente horrek.

LARRUNEN IDATZIAK

Larrungo mendi marzelan *EZ AHT-LGVNON* idatzi dute iratzeaz moztuz hizki hauen forma egin ez. Ekimen hune-
kin Larrunaldeak jasan deza-

ken kalteaz ohartarazi nahi dute. Jendea aintz mintzo da hortaz: Miarrizko aireportuan ari diren hegazkin gidariekin hortaz mintzatu dira aste hontan beren lantokitik ontsa ikusten baitute. Iratzeekin egin den zizelketa helikoptero batetik filmatzekoa dute eta irudi hauek mundu oso-
ko telebistetan eta Interneten zabalduko dituzte.

Azkainen proiektuaren kontra talde bat sortu dute, hemen horrela korik ez da momentuz...

Nekazariak haserre

Esnearen prezioaren apaltzea salatzen, urriaren 5ean esne egileek manifestaldia egin zuten Baionan. Egun berean, Europako ministroak bildu eta ez dutela laguntzarik emanen erran zuten.



ARGAZKIAK: ARANTXA LEIZAGOYEN

Sorginak gogoan

Urriaren 4an besta biziki alaia ospatu zen giro ezin hobean gazteluko plazan. Ustezko sorginen kontrako auzien 400garren urtemugak mundu bat bildu zuen eta egunaren gaitzeko arrakasta ikusirik, batzuek diote balio izanen lukeela zerbait egitea heldu den urtean ere. Zergatik ez Zugarramurdiko auzoekin?

FLASH

Iparraldeko auzapezen biltzarra

Christine Bessonart Iparraldeko auzapezen biltzarreko presidentak izendatua izan da berriki, Andde Darraidou ezpeletarraren segida hartuz. Lehen aldia da emazte batek zuzentzen duela egitura hori. President orde hautatu dituzte Sauveur Bacho Arberatzeko auzapeza, Donapaleu ondoan, eta Mixel Etxebest Mauleko auzapez berria. Aipagarria da hirurak euskal departamenduaren alde direla eta Euskal Herriko zazpi hiriburu-
en artean euskara dakien auzapez bakarra dela Etxebest.

Gazteen egonaldiak

Gazte sailak egonaldiak prestatu ditu Lapurdi eta Nafarroako hamar gazte elgar eza gut dezaten. Urriko lehen asteburuan, nafar gazteak Senperen izan ziren Plazako errota garbitzen, kayak egiten Urdazuri ibaian eta bela egiteko Zokoan. Hazila-
ren 20, 21 eta 22an, senpertarrak Lizarrarat ganen dira ekonomia eta droga menpekotasunari buruzko aritzeko.

Gurasoak kexu

Eskola publikoan ikasleak eta burasok kexu dira euskara irakasle bat falta baita. Bi ordezkariekin moldatu behar dute aurtengo baina burasok nahiago lukete irakasle bera egon dadin urte osoan. Miarriz egin zuen agerraldi batean, Luc Chatel Frantziako hezkuntza ministroak erran du badakiela arazoak badirela baina onartu behar dela azken urteetan euskararen irakaskuntza aintz hedatu dela...

HERRIKO ETXEN
EDXNTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
Tf: 0539342519
Marian eta Véronique
SARA

BURKAITZEA
• ostatu
• erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km
948 599 280 - URDAZULI

ANZABAL
AGENZIA

• Zurich Asesurak
Autza, etxebizitza, ibilgu eta biltza asesurak
• Lan aholkularitza
Nomen eta Asesur Sozialak
• Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
• Inmobiliaria
Baserr, borta, pieu, etab... salmenta eta alokaria
• Gestoria
Ibilgailuen transferentzia, gidatzeko kartearen berritzea eta edozein pisako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

EZKONTZAK

Ganix Zubieta Rodriguez eta **Loinaz Iribarren Bertiz**, Berakoa eta Etxalar-koa, irailaren 19an Etxalarren.
Pablo Elizondo Gelbentzu eta **Leire Uterga Labiano**, Doneztebekoak, abuztuaren 29an Donezteben.
Jesus M^a Ziaurriz Saenz de Ugarte eta **M^a Milagros Mariezkurrena De Andrade**, Irungoak, irailaren 12an Le-sakan.
Xabi Berrouet eta **Argitxu Saint**, irai-laren 26an Saran.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 te-lefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Manex Zelaieta Artieda, Legasakoa, abuztuaren 11n.
Garazi Hernandorena Arretxea, Le-gasakoa, abuztuaren 26an.
Ugaitz Salaberri Bertiz, Nartartekoa, irailaren 25ean.
Laia Erkizia Font, Lesakakoa, iraila-ren 23an.
Naia Apeztegia Grassa, Lesakakoa, irailaren 29an.
Oier Aginagalde Iparragirre, Etxalar-koa, irailaren 26an.
Thomas Marsant, Sarakoa, irailaren 18an.
Unax Aizpurua Ibargarai, Sarakoa, irailaren 23an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 te-lefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Ignacia Alduntzin Sagastibeltza, Lei-tzakoa, irailaren 21ean, 96 urte.
Maria Otxandorena Elizalde, Dona-mariakoa, irailaren 24an, 94 urte.
Lorenzo Duhalde Iribarren, Arizkun-go, irailaren 24an, 83 urte.
Silverio Sarobe Aldabe, Berakoa, irai-laren 24an, 97 urte.
Isabel Arburua Irazoki, Berakoa, irai-laren 25ean, 84 urte.
Carlos Altzuri Mitxelena, Arantzakoa, irailaren 28an, 79 urte.
Jose Mari Zelaieta Ganbarte, Arraioz-koa, irailaren 29an.
Pedro Telletxea Baleztena, Arraioz-koa, irailaren 30ean, 85 urte.
Casiano Otxoteko Errazkin, Lesaka-koa, urriaren 1ean, 77 urte.
Maria Pilar Sarratea Barrenetxe, Nar-bartekoa, urriaren 1ean, 64 urte.
Florentino Gonzalez Ezpeleta, Aran-tzakoa, urriaren 2an, 79 urte.
Ignacio Sorozabal Alberro, Donezte-bekoa, urriaren 3an, 70 urte.
Juanita Arrasate Kanpandegi, Lesa-kakoa, urriaren 5ean, 77 urte.
Jose Fernando Del Rio Etxeberria, Elgorriagakoa, urriaren 5ean, 62 urte.
Asuncion Mitxeo Martiskorena, Do-namariakoa, urriaren 6an, 80 urte.
Narciso Baleztena Loiarde, Aurtizkoa, urriaren 7an, 77 urte.



Anastasia ERRANDONEA ERRANDONEA

Beran, 2007ko urriaren 16an

II. URTEURRENA

Seguru urte aunitz pasako direla eta hau bigarrena bertzerik ez dela izanen Baina urteak kontatu ahal izateak berak zurekin ahazten ez garela adierazten du.

ZURE FAMILIA



Asier TELLETXEA TELLETXEA

IV. URTEURRENA

Bromista eta zirikatzaile guztiekin elkartzean hala iristen diogu beti une asko berritzean gure ondoan bizitakoa elkarrerik kontatzean umore onez ageri zera oroitzean bakoitzean irribarrea etortzen zaigu Asier, zutaz oroitzean.

Berdin-berdin da goizean goizetik edo ilunabarretan berdin-berdin da berotan edo euri tanta bustietan berdin-berdin da zaharren hitzetan edo hauren jolasetan berdin-berdin da zubian edo landan dauden alometan zune amasa bizirik dago herriko bazter denetan

ZURE FAMILIA ETA LAGUNAK



Fede ARRIBILLAGA DANBORIENA

Hostoak arboletatik erortzen diren bezala udazkeneko egun batean joan zinen.

Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzean ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.

ZURE LAGUNAK
Etxalar, 2009/09/29

HERRI KIROLAK → KOXKOR-BILTZE TXAPELKETAK

Maika Ariztegi eta Fernando Etxegaraik bertze bi txapel jantzi dituzte

Ariztegi
Euskadikoa eta
Etxegaraik
Nafarroakoa

TTIPI-TTAPA | IGANTZI

Koxkor Biltze Txapelketako bertze bi txapel Itureren eta Beran dira bertze behin ere. Emakumezkoen Euskadiko Koxkor biltze Txapelketa Maika Ariztegi iturendarrak irabazi du aurten ere, eta gizonezkoen Nafarroako txapela, berriz, Fernando Etxegarai Etxegaraik. Bi txapelketak Igantziko besten barne jokatu ziren irailaren 26an.

**ARIZTEGIREN
BEDERATZIGARRENA**

Maika Ariztegi Euskadiko koxkor biltze Txapelketako bederatzigarren txapela izan du aurten go, eta 20 segundo ko alde atera zion Josune Gorostidi bigarren sailkatuari. 37 urteko iturendarrak marka berria ezarri zuen (07:23.05). Iaz 07:21ean egin zuen, baina frontoiak neurri ofizialak ez zituenez, ez zen homologatu.

Bost kirolari aritu ziren lehian eta honela sailkatu ziren: Maika Ariztegi, Josune Gorostidi (Txarama, Gipuzkoa), Nahia Ferran (Gasteiz, Araba), Lurdes Intxausti (Idiazabal, Gipuzkoa) eta Itxa-



ARGAZKIAK: AITOR A.

Maika Ariztegi eta Fernando Etxegarai txokor-biltzen.

so Hernandez (Legutiano, Araba).

Bakoitzak ilaran jarritako 50 koxkor saskiratu behar izan zituen.

**ETXEGARAI TXAPELDUN
ETA LASAGA**

AZPITXAPELDUN
Igantziko jaialdi berean,

gizonezkoen Nafarroako Koxkor biltze Txapelketa jokatu zen, eta Fernando Etxegarai beratarak irabazi zuen hamargarren aldiz. Bost kirolari lehiatu ziren eta hurrenkera honetan sailkatu ziren: Fernando Etxegarai (6:28.11),

Andoni Lasaga (Etxalar, 6:28.85), Iñaki Ekisoain, Eder Goldarazena (Berriozar) eta Patxi Iratzoki (Igantz). Iratzokik ez zuen lana bukatu.

Egin beharreko lana 1,25 metrotara eta bilerrotan paratutako 50 txokor biltzea izan zen.

AIZKORA → NAFARROAKO AIZKORA TXAPELKETA

Jon Rekondo eta Oihan Larretxea Maila Nagusian ariko dira hurrengo denboraldian

Leitzarrak
Nafarroako
II. Mailakoa
irabazi du

TTIPI-TTAPA | UHARTE

Jon Rekondo leitzarra eta Oihan Larretxea beratarra -Donatoren semea- Maila Nagusian ikusiko ditugu hurrengo denboraldian.

Irailaren 27an Iruñeko Uhartan jokatu zen II. Mailako Nafarroako Aizkora Txapelketaren finala eta Rekondo eta Larretxea gailendu ziren.

Bortz aizkolari aritu ziren lehian: Jon Rekondo, Oihan Larretxea, Xabier Mindegia (Beintza-Labaien), Jesus Etxeberria (Beintza-Labaien) eta Daniel Vicente (Otsagi). Bakoitzak bi kanaer-

diko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat moztu behar izan zituen. Eta lanak akitzen bizkorrena leitzarra izan zen. 17:05.41eko denbora egin zuen; bigarren postua Oihan Larretxea-arentzat izan zen (18:12.25); hirugarren Daniel Vicente gelditu zen (19:44.93); laugarren Xabier Mindegia (19:53.53) eta Jesus



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Rekondo eta Larretxea Uharteko saioaren ondotik.

Etxeberria bosgarren (23:21.49).

Erran bezala, lehen biak mailaz igoko dira.

Jon Lekuberria, 31 urteko zaldun lesakarra Toledon bizi da azken bi urteetan, Talavera de la Reinan zehazki, eta zaldien doma klasikoan aritzen da, profesionalki horretara

emana. Aitzinetik, Valentzian, Katalunian eta Extremaduran ere izan da, beti zaldien mundu horretan murgildua. Zalditegien mundua, Formula 1eko autoekin konparatu

du, talde handia izaten baita zaldi bakoitzarekin lanean. Zaldien balioa neurtzeko lehiaketetan parte hartzen du eta zenbait sari ere irabaziak ditu.

Jon LEKUBERRIA | Doma klasikoa egiten duen zaldun lesakarra

«Zaldiaren berezko portaera landu nahi dut eta ez robot bat egin»

Aitor AROTZENA | LESAKA

«Zaldiak hezitzen egiten dut lan, doma klasikoan, eta balio duten aziendak lehiaketetara eramaten ditugu, beraien balioa ikusteko eta neurtzeko. Zalditegi bat osatzerakoan nondik nora joan behar den aztertze-ko baliagarriak dira proba hauek, aukera bat egiten da», dio Jon Lekuberriak bere lanbideaz galdetzerakoan. Doma klasikoko lehiaketak morfofuntzionalak direla zehaztu digu, hau da, «alde batetik zaldiaren forma, itxura neurtzen da, lepoa, hankak, sorbalda... eta bertzetik, portaera, trostan ibiltzeko modua, lauoinka edo galopan ibiltzekoa...».

Funtzionaltasun hori lantzeko egunero entrenamenduak egiten dituzte, «zaldi bakoitzarekin egunero 45 minututik ordu eta erdira ematen dugu. Lau lagunak kargu 28 zaldi ditugu gure hipika zentroan». Izan ere, F1eko karreretako kotxeek bezalatsu, lan talde handia izaten da zaldi hauen inguruan: «mozoa –zaldia bazkatu eta azpiak ateratzen dituen langilea–, ni bezalako prestatzaileak, albaiteiroa, nutrologoa, ferratzailea eta gainetik dugun entrenatzailea. Guk ez dugu ikusten zaldi gainean egiten duguna eta entrenatzaile honek era-



UTZITAKO ARGAZKIA

Jon Lekuberria zalduna, lehiaketetarako erabiltzen duten jantzi dotorearekin.

kutsi eta zuzentzen digu».

ZALDIAREN OREKA FISIKO ETA SIKIKOA

Zaldiaren oreka bilatu behar dute, fisikoa nahiz sikikoa. Lekuberriak dioen bezala, «zaldiaren inguru naturala ez da kuadra, mendia bai zik eta nik, falta zaion askatasun hori aportatu behar diot nolabait ere. Zaldia lasai kontu behar dut, korraletan bere gisara saltoka ibiltzen utzi, eta ahalik eta denbora gehien ibili kanpoan. Be-

BUELTATZEKO AUKERA
«Euskal Herrira itzultzeko aukera polit bat suertatuz gero bueltatuko nintzen, baina zaldiekin lotutako zerbaitekin, noski! Urte aunitz ditut zaldiekin, ez dut bertzerik ikasi eta horretan ariko nintzateke»

re berezko portaera izan litzatekeena lantzea gustatzen zait eta ez robot batean bihurtu, azken finean zaldiak dira». Toledon zaldi espainiarrekin aritzen da lesakarra, baina zaldi europarrak ere izan ditu esku artean bere ibilbide luzean. «Europar lan handia egin dute, aukeraketan eta ikerketan agitatez aitzinduagoak daude. Berezko lehengaia dute, gure mailatik goiti eta aurreratuena alemanak dira». Bertze kiroletan bezala,

plangintza zehatza behar izaten da eta hori xuxen bete behar da: «hasierako ariketak erraxak izaten dira, eta maila eta adinean goiti doazen neurrian, ariketak ere zaildu egiten dira pixkanaka». Zaldiaren adinaren arabera banatzen dira kategoriak doma klasikoan: 4 urtekoak, 5 urtekoak, 6 urtekoak eta 6 urtetik goitikoak, helduak.

Entrenamenduetaz gain, txapelketetan ere parte hartu du Jon Lekuberriak. «Gehienetan Gaztela Mantxako txapelketetan aritzen naiz, puntuatzeko eta noizbehinka txapelketa nazionaletan ere aritu naiz, gehien bat zaldia baloratzeko. Zaldiak kalitate on xamarra duela uste badugu txapelketa nazionaletara aurkeztzen dugu, baina bertzeala behiko mailetan aritzen gara. Sari dextente lortu ditut, gehienak duela urte batzuk. Extremaduran sei urteko zaldietan txapeldun atera nintzen, eta zaldi berarekin hirugarren izan nintzen Espainiako txapelketan».

Harat-honatean zaldiekin ibiltzeaz ez dela inoiz aspertu dio lesakarrak, eta oraindik bere karreraren goitirako bidean dagoela ikusten duenez, ez du sorterrira bueltatzeko asmorik oraindik.

AIZKORA → NAFARROAKO LEHEN MAILAKO TXAPELKETA

Donato Larretxea eta Mikel Mindegia Lehen Mailako finalean izanen dira

Azaroaren 13an
jokatuko da
Donezteben

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Etxarri Aranazko Floren Nazabal, **Arantzako Donato Larretxea**, Lezaungo Juan Jose Lopez, **Ezkurra Mikel Mindegia** eta Olagueko Antonio Senosiainek hartuko dute parte azaroaren 13n Doneztebeko pilotalekuan jokatuko den

Nafarroako lehen mailako aizkora txapelketan.

Urriaren 4an erabaki zen, orduan jokatu baitzen kanporaketa eta borts aizkolaria hauek lortu zituzten denborarik onenak, bi kanaerdiko, bi 60 ontzako, eta 72 ontzako bat mozten. Nazabalek 11:40 beharizan zituen; Larretxeak 12:36; Lopezek 13:31; Mindegia 14:22 eta Senosiainek 15:14.

Barberena finaletik kanpo gelditu zen 12 se-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Mindegia eta Larretxea izanen dira Nafarroako Lehen Mailako Aizkolaria Txapelketako finalean ariko diren eskualdeko bi aizkolaria.

gundugatik. Manuel Kaniamares zazpigarren izan zen, **Ander Erasun aur-tiztarra** zortzigarren eta Aitor Senosiain bedertzigarren. Hala, Senosiain II.ak eta kanporaketan parte hartu ez zuen eta erretiroa hartzea pentsatzen ari den **Antonio Jaunarena** zubietarrak maila galduko dute.

EUSKAL HERRIKO HIRUGARREN MAILAKO FINALA GOIZUETAN

Nafarroako Txapelketa Nagusiko finalista ez ezik, Euskal Herriko hirugarren mailakoak ere erabakia daude. Aizken jokatu zen hirugarren eta azken kanporaketan Etxarri-Aranazko Juanjoxe Er-

doziak eta Nuarbeka Josu Aizpuruk lortu zuten finalerako txartela.

Beraiekin batera, **Berako Oihan Larretxea**, **Leitzako Arkaitz Olano**, Mutrikuko Ugaitz Mugertza eta **Urrozko Raul Kastro** ariko dira Goizuetan, azaroaren 22an, 12:30ean jokatu-ko den finalean.

HERRI KIROLAK → ARPANA, TXINGA ETA HARRI TTIKIA

Txapelik ez nafarrentzat

Txinga eta
arpanearen
hirugarren
eskualdekoak

Hierroren (Araba) gibel-
etik.

ARPANEAN ERE HIRUGARREN POSTUA

Euskal Herriko Lehen Mailako arpanlari txapelketaren finala ere jaialdi berean erabaki zen. Anaien arteko lehia estua eskaini zuten Aitor eta Igor Esnaola gipuzkoarrek eta Iñaki eta Josetxo Barberena nafarrek. Azkenean, borts segunduko aldeaz Legorretakoak nagusi ziren. **Mikel Bertiz sunbildarrak** eta **Xabier Urrutia arraiok** osatu zuten podiuma. Eta seigarren postua **Igor Lasaga beratarra** eta **Jabier Ga-**



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Unai Bertiz sunbildarrak lan txukuna egin zuen Harri Ttikien Txapelketan.

Iarregi etxalartarraren -
tzat izan zen.

HARRI TTIKIETAN PAREKORIK EZ

Aimar Irigoien erretil-darrak irabazi zuen harri ttikietako Euskadiko Harri-jasotze Txapelketa urriaren 4an Aizarnabalen (Gipuzkoa), hirugarren urtez segidan. Gainera, txapelketako marka ezarri zuen, iaz

baino 100 kilo gehiago bizkarreratuta. Joseba Ostolaza izan zen txapel-dunordea bertze behin, zazpigarren aldiz sailkatu baita bigarren postuan. Izeta IV.a eta Izeta III.a sailkatu ziren gero, hurrenez hurren.

Hiru nafarrek bete dituzte azken postuak. Aipagarria izan zen, hain-
re, **Unai Bertiz sunbildarraren** lana, Nafarroako

txapelduna lehen aldiz aritu zen txapelketan eta marka ona ezarri zuen (10.950 kilo).

Josetxo Urrutia leitzarrak eta Aldatzeko Xabier Igoak, euren aldetik, ondu egin zituzten aurrez eurek ezarritako markak. Urrutiak 9.450 kilo altxatu zituen guzira eta kontuan hartu behar da bera zela harrija-sotzailerik arinena.

TTIPI-TTAPA | BERRIOZAR

Euskal Herriko Lehen Mailako Arpana eta Txinga-eramate txapelketak erabaki ziren urriaren 3an Berriozarren (Nafarroa) eta aurtengoan Nafarroako kirolariek ez dute txapelik eskuratu.

Txinga eramaten, iaz txapeldun izandako Miguel Angel Sukuntza leitzarra saiatu zen, baina azkenean hirugarren izan zen, Debako Juan Joxe Agirregabiria (Gipuzkoa) eta Laudioko Roman

urriak 16 - urriak 29

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Feriak



ELIZONDO | 2009.10.30

**Udazkeneko Azienda Feriak
Baztanen abiatuko dira**

Elizondon abiatuko da eskualdeko azienda ferien sasoia. Segidan, azaroan sartuta, Donztebe, Lesaka eta Goizueta-koen txanda ailegatuko da.

Ospakizunak



LEITZA | 2009.10.19/25

Bigarren Mikologiaaldia

Urriaren 19tik 23ra mendira ateraldiak egingen dira eta hurrek marrazkiak egingen dituzte eskolan. 24an haurrak ere mendira aterako dira eta 25ean erakusketak mikologikoa izanen da.

Kontzertuak



BERA | 2009.10.25

Txinako abesbatza Kultur Etxean

Peiyang Chorus Txinako Tianying hiriko abesbatzak emanaldia eskainiko du Kultur Etxean urriaren 25ean, 20:00etan. Sarrera 5 eurokoa izanen da.

Ikastaroak

ETXALAR

Krisiari aurre egiteko informatika ikastaroak

Urriaren 21etik 23ra "Curriculumak eta iragarkiak egin".

Urriaren 28tik 30era "Lana bilatzea Interneten".

Azaroaren 5 eta 6an "Musika eta irratia entzun, eta telebista ikusi Interneten". Izen-ematea: 948 635386-kulturetxea@etxalar.org.

IGANTZI

Herrikoa Fundazioaren solasaldiak

Urriaren 27an "Gatzak konponketa".
Urriaren 29an "Araukak eta mugak". Igan-tziko eskolan, 16:00etan Herrikoa Fundazioko Karmen Nietoren eskutik.

Ipuin kontalariak

BERA

Haurrentzako ipuin kontalariak

Urriaren 23an "Mimiaren abenturak" ipuina kontatuko du Lur Usabiagak liburutegian 18:00etan.
Urriaren 30ean "Ipuin tikiak" kontatuko ditu Ines Bengoak 4-7 urte bitartekoentzat, 18:00etan liburutegian.

Ospakizunak

ARIZKUN

Kirikoketa Besta

Urriaren 24an Kirikoketa besta antolatu du Jo ala Jo taldeak Gamiarreen.

BERA

Lurraren Eguna

Urriaren 25ean XXIII. Lurraren Eguna antolatu du Gure Txokoa elkarteak. Gasna eta sagardo lehiaketak, barazkiak, eskulanak.

Erakusketak

URDAZUBI

Gaur egungo pintura

Urte osoan, gaur egungo pinturari buruzko erakusketa. Ortzegunetik igandera, 14:00etatik 18:00etara Monastegian.

BERTIZ

Diana Iniestaren margo erakusketa

Urriaren 1etik 30era, Diana Iniestaren "Como árboles" margo erakusketa Natur Parkean.

BAZTAN

«Bertan» Argazki lehiaketako lanak

Urriaren 8tik 29ra, komertzianteen elkar-teak antolatutako argazki lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai Arizkunenean.

Kontzertuak

ARANTZA

Tomania taldea Udazkeneko Biran

Urriaren 17an Tomania folk taldeak kontzertua eskainiko du frontoian 20:00etan, Udazkeneko Biraren barnean.

BERA

Joseba Irazoki lamotenean

Urriaren 17an Joseba Irazokik kontzertua eskainiko du 20:00etan, Musika Eskolak antolatua.

Txinako abesbatza Kultur Etxean

Urriaren 25ean Txinako Peiyang Chorus abesbatzak emanaldia eskainiko du Kultur Etxean 20:00etan.

ELIZONDO

Música a la carta ikuskizuna

Urriaren 25ean Ojalá Nafarroako Kantautoreen Elkarteak "Música a la carta" ikuskizuna eskainiko du Arizkunenean, 19:30ean.

ETXALAR

Irungo Txistulariak

Urriaren 23an Irungo txistulari bandak emanaldia eskainiko du Kultur Etxean 15:00etan.

PROPOSAMENA

BERA

XXIII. Lurraren Eguna urriaren 25ean

Gure Txokoa elkarteak hogeita hirugarren aldiz antolatu du Lurraren Eguna. Urtero bezala, eskulangileak, sagardo eta gasna lehiaketak, bertsolariak, barazki eta fruitu erakusketak, argazki erakusketak, dantzaldia eta ber-tze hainbat ekitaldi izanen dira egun osoan. Bezperan, ohiturari eutsiz, Lizuniagako Igoera egingen da 17:00etan.



LEITZA

Jarrai erakundearen 30. urteurrena

Urriaren 17an Gazte Eguna ospatuko da urteurrena gogoratuz. Xehetasunak 38. orri-an.

Bigarren Mikologialdia

Urriaren 19tik 25era antolatu du ALKE Leitzako Kultur Taldeak. Xehetasunak 38. orri-an.

Lehiaketak

LEITZA

Literatur lehiaketa antolatu du ALKEk

Urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira narrazio eta ipuin lehiaketa eta bertso-paper lehiaketarako lanak.

Zinema

LESAKA

Haurrendako zinema komentuan

Urriaren 17an "Winx, Erreinu galduaren sekretua" haurrendako filmea ikusgai izanen da komentuan 17:00etan. Antolatzaileak: Euskarabidea eta Nafarroako Gobernua.

ETXALAR

Haurrendako zinema eta Marimendi

Urriaren 16an "Perez Sagutxo 2" haurrendako filmea ikusgai 19:00etan Kultur Etxe-an. Laguntzailea: Euskarabidea. 20:30ean, Marimendi emakume mendizale taldearen aurkezpena: "Elbrus, Europako gailurrera espedizioa".

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Gulliverren lokarriak

Xabi BORDA

Elkar, 2009

Bigarren poema-liburua dakarkigu Xabi Bordak: Gulliverren lokarriak, Joseba Jaka bekaren laguntzaz idatzitako bilduma; heldutasun beteagoa erakusten du azpeitiar gazteak: berezko nortasuna munduari begiratzeko orduan, eta originaltasun eta gustu berezia hitzak hautatzean eta esaldiak tolestean. Egileak berak dioenez: "Idazteak abentura izan behar du. Idazteak behar du zerbait Gulliverren grina horretatik: ekaitz neurotikoen menpe dago idazlea, eta nongo hondarretan lehorreratuko den jakin gabe itsasoratu behar du, naufragatzearen beldur izan gabe, itotzeko arrisku hori beti hortxe present izanda. Larri hori ez zaio gaitz, alderantziz baizik: idazleak tentsio horren beharra sentitu behar du, behin eta berriz itsasoratzeko inoiz etxeko suaren goxora errenditu gabe". Liburua lau zatitan banatuta dator: "Hezur lagunak", "Hezurak bere beltzean", "Hezur sintetikoak" eta "Hezur jokoan", eta guztira 46 poema biltzen ditu.

Musika



Papera eta kartoia

KEROBIA

GOR, 2009

Papera eta kartoia diska, Kerobiak planteatzen duen trilogiaren bigarren alea da. "Materia organikoa eta gainerakoak" lanaren ondotik, diska berri hau gogoeta eta konposaketan eszenatoki berrien bilaketan oinarritzen da. Taldeak eskaintzen duen emaitza 2006an argitaratu zuen "Rose Escargot" eta trilogiaren lehenengo zatia arteko oreka bat da, bertzehor ere joera berriak uztartuz. Testuak, Kerobiaren lanetan ohikoa den bezala, berebiziko pisua mantentzen du kantuen barrenean, hari lotzailearen papera hartuz. Kerobia taldea 2001 urtean sortu zen, Iruñean, Mikel (bateria) eta Xabik (kitarra eta ahotsa) "Suhar" desegin zutenean. German (teklatuak) eta Karlos baxujoleak osatu zuten laukotea eta 2003an Euskadi Gaztearen maketa saria irabazi zuten. Hurrengo urtean bere lehen diska argitaratu zuten, «Kerobia». Geroztik lan emankorra egin dute eta Euskal Herriko egungo musikaren talde handietako bat da.

Internet



ALKE Leitzako Kultur Taldea sarean

LEITZAKULTURA.NET

Leitzako ALKE Kultur Taldearen informazioa eskura daiteke Internet sarean. Hasierako orrian, azken berriak agertzen dira, argazkiekin hornituak. Gainera, Leitzako kultur taldeari buruzko jakinarriak, iazko Memoria, Harremanean jartzeko aukera (alke@leitzakultura.net) eta kultur jardueren internautek duten iduria jakiteko galdetegia ere badu webguneak. Agendan, Leitzan antolatutako ekitaldien berri ematen dute, eguneko, asteko, hila-beteko edo urteko egitaraua ikusteko aukerarekin. Erretratatuak sailean, ekitaldi horien argazkiak ageri dira (herriko pestak, Kultur Astea, San Juan bezpera, Sagardo Eguna...). Kuttunak atalean, taldekidetuen iduritan gogoangarrienak diren artxiboak eta dokumentuak biltzen dituzte, honela, modu errazago batez eskura izateko. Internet-en nabigatzeko orotariko loturak ere ageri dira.

Nire aukera



Totu ITURZAETA

BKTko eskubaloia jokalaria ohia

Aste tartz ezin eta asteburuak trankil egoteko aprobetxatzen dut

Urtetan goi mailako kirolaria izan da Totu Iturzaeta elizondar arizkundartua, baina aurten BKT eskubaloia taldean aritzeari utzi eta aste hondarrak libre dituen, gauza gehiago egiteko astia du: "Mendira gan, aperitiffa hartu gurasoen etxera bazkaltzera gan... ta orainik launbeta eguerdie da!". Oporrak dituenen bidaiatzea ere gus-tatzen zaio. Beti kirolean aritu denez, libre duenean ere horretan saiatzen da, "mendira gan, bizikletan ibili. Spinning egiten ere hasi naiz. Eta aspaldi *Trantxeri* promesa egin niola eskubaloia uzterakoan Baz-tango mendigoizaleekin hasiko nintzela, beraz hori ere bete behar dut orain!". Eskubaloiarekin ere lotua segitzen du, BKTko infantilak entrenatzen baititu. Eskubaloiko desplazamendutan irakurtzen zuten, "baina aurten ez ditudanez arras guti irakurtzen dut". Lanean egun osoa ordenagailuan pasatzen duenez, "asti librea dudanean ez du gogorik izaten Internet-en sartzeko".

ETXEBIZITZAK
salgai

BERA. 80 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, trastelekua eta ganbara. Berritua. ☎657 715243/657 799953.

DONEZTEBE. 2 pisu, 2 eta 3 logelakoak, eta etxea egiteko lur eremua salgai. ☎607 978656.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ERATSUN. 3 borda salgai, lurrekin. ☎943217817.

ETXALAR. Lizaietako parajea zaharberritzeko borda salgai, lur eremuarekin. ☎661 121540.

DONEZTEBE. Zazpigarutze 1-en pisua eta garajea salgai. Pisua hirugarren solairuan, igogailuarekin, mobleztatua eta estreinu gabea. ☎650 038024.

BERA. Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldea balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. ☎948 631381/697 436845/elvetearra@aol.com.

IGANTZI. Latsaga 22, 1 ezker pisua salgai: 3 logela, egongela eta sukaldea. Mobleztatua. Gara-
jea edota trastelekuarekin. Bista ezinhobeak. Berogailua. 162.275 eu-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ro. ☎948 259039/948 149857.

LESAKA. Etxe bat salgai. Informazio gehiagorako. ☎609 477277/618 188300.

ARANTZA. Etxebizitza salgai. Prezio interesgarria. ☎697 454866.

DONEZTEBE. Herrigunean pisua salgai. Bista onak, mobleztatua eta dena berria. ☎637 234539.

DONEZTEBE. Intzakar-di parkearen ondoan pisua salgai. Pisua ganbarekin elkartua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. Garaje pla-

DONEZTEBE
Zazpigarutze plazan
115 m²ko pisua salgai.
3 logela, 2 bainugela
eta trastelekua. Eguzki-
tua eta estreinu gabea.
630 948271

zarekin. Berritua. ☎680 781632.

ETXEBIZITZAK
errentan eman

LESAKA. Herri erdian da-
goen pisu hutsa errentan
emateko. ☎696 127601.

LESAKA. Astelehenetik
ortziralerako logelak suka-
dearekin errentan ema-
teko. ☎678 855056.

ETXALAR. Etxebizitza
errentan emateko. Bista
ederrak eta prezio ego-
kia. ☎680 538502.

DONEZTEBE. Herrigunean, pisua errentan
emateko. 3 logela, 2 lo-
gela eta kanpo aldera.
☎619 221318.

BERA. Agerra auzoan pi-
su mobleztatua errentan
emateko. ☎620 203906.

ELGORRIAGA. Pisua
errentan emateko, gan-

bara eta baratzarekin.
☎630 520761.

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

LESAKA. Etxe bat edo
baserri bat errentan har-
tu nahi da. ☎609 477277.

ZERBITZUAK
zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegiak
- Klase guztietako
zurgin lanak
- Eskatu erreklamazioak
konpromiso gabe
- Jose Miguel Errodo
Tel. 948 634 040 - 948 634 144
Gernika - ARANTZA

GARAJEAK / LOKALAK
salgai

LESAKA. 20 m²ko lokal
komertziala salgai. Albis-
tur, 43. ☎659 609678.

ELIZONDO. 60 m²ko lo-

kal komertziala salgai edo
errentan emateko. Den-
da edo bulegorako prest.
☎675 433415.

GARAJEAK / LOKALAK
errentan eman

LESAKA. Herri erdian ga-
raje-marra errentan ema-
teko. ☎696 127601.

BERA. Kanttonberri ka-
lean 70 m²ko lokal ko-
mertziala errentan ema-
teko. ☎655 706364.

LANA
eskariak

Mutil bat edozein lane-
tan ariko litzateke. ☎697
605025.

LANA
eskaintzak

BERA. Ibardingo benta
batean biltegi aritzeko
mutil bat behar da. ☎948
630734.

SARA. Urtxola jatetxeko
ostatuen asteburuetan
lan egiteko norbait behar
da. Esperientziaduna.
☎686 561525/(0033)
559542831.

IBARDIN. Beola Etxeko
supermerkatuan lanaldi
osoan aritzeko langilea
behar da. ☎948 630709.

IBARDIN. Beola Etxeko
jatekxan lan egiteko zer-
bitzaria behar da, egu-
nean lau orduz. ☎948
630709.

BAZTAN. 20-35 urte bi-
tarteko almageneroa be-
har da, esperientziadu-

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(irailaren 25etik urriaren 2ra bitarteko prezioak)

**Zerrikumea**

(19 kilo): 33,00 € (=)

Zerri gizena

1,048 € kilo. (-0,035)

Zerramak:

0,410€ Kg/bizirik. (-0,030)

**Aretze gizenak:**

Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,89 (=)

1.koa 3,59 (=)

2.koa 3,89 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,99 (=)

1.koa 3,69 (=)

2.koa 2,99 (=)

Oharra: Prezioak 180-220
Kg. kanalean pisatzen du-
ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,82/2,92

Zaldi-behorrak: 1,52/1,72

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,80/8,60

8-10 kilokoak: 6,50/6,90

na. Bidali curriculumak: almacenerobaztan@hotmail.com.

DONEZTEBE. Bixen os-tatuan asteburuetan su-kaldean aritzeko langilea behar da. ☎948 450383.

LESKA. Gestore Admi-nistraria behar dugu, Eus-kadiko Kutzaren Lesaka-ko bulegorako. Informa-zio gehiago behar badu-zu, pasa Lesakako bule-gotik. Izena emateko jo www.cajalaboral.es orri-ra.

IRAKASKUNTZA eskaintzak

BERA. Pintura, marraz-ki eta frantses klaseak emanen nituzke. ☎620 719400.

MOTORRA tailerrak



MENDAUR MOTOR 948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

MOTORRA salerosketak

Nissan Terrano II 2.7 TDI salgai. 1997koa. Egoera ona. ☎629 126185.

Suzuki Grand Vitara 2.0 TD salgai. 2005ekoa, egoera onean, ITV maia-tzean pasatua. 30.000 km. ☎639 156105.

Suzuki GSR 600 moto-rra salgai. 2007koa. 12.400 km. Paperetan 34 zaldira limitatuta, zentra-lita originala eta limita-tzailearekin. Garajea egondakoa eta egoera onean. ☎686 316397.



Citroen Xsara 1.9 D au-toa salgai. 98.000 kilo-metro. 2003koa. Kanpo-tik eta barrenetik egoera onean, beti garajea egondakoa. Haize ego-kitua. ☎672 394607.

Opel Astra 1.7 DTI au-toa salgai. 9 urte. Kan-potik eta barrenetik egoe-ra onean, beti garajea egondakoa. Haize ego-kitua. Gutti kontsumitzen du. ☎617 792401.

Renault Laguna 1.8 ga-solina salgai. 95 zaldi. 1998koa. Konfidantzaz-koa eta hagitz egoera onean. ☎606 260659.

Citroen Jumpy salgai. 300.000 kilometro. Azien-dak ibiltzeko presetatua. NA-AU. ☎629 059740.

ANIMALIAK salerosketak

Astoa salgai. 5 urtekoa, umearekin. Berriz ere arra hartua. Asto larria, kon-dizio onekoa. ☎669 664026.

Setter arrazako **zakur-kume** emea salgai. 4 hi-labete txertatua. Aita eta ama ehiztari onak. ☎661 821645.

Adarrik gabeko **ahare**



muturgorria salgai. ☎606 019337.

DENETARIK galdu-aurkituak

BERUETE. Txakur beltz ttiki bat galdu da duela hilabete bat. Hilabete ba-tekoa, gutxi gorabehera. ☎948 503004.

DENETARIK salerosketak

Egoera onean dagoen **tri-kitixa** bat erosiko nuke. ☎607 407687.

Belaridorren boloak eta **lastoa** salgai. ☎690 776147.

Botoidun **akordeoia** sal-gai: Pignini 42-B. Bihur-garria, bassetti eta baxu estandarrak. Eskuin es-ku: 7 erregistro, mento-rena: 3 erregistro eta ez-ker eskuan: 7 erregistro. 102 baxu. ☎630 942174/948 637793.



3 urteko **trikitixa** salgai. ☎686 840064.

PROIEKTU ZENBAKI: **15.996**
TTIPI-TTAPA FUNDazioak
ZURE LAGUNTZA BEHAR DU
EGINZASU TTIPI-TTAPAREN ALDE

Eska ezazu TTIPI-TTAParen proiektua aukeratu izanaren frogagina Nafarroako Kutzaren zure bulegoan eta okar ezazu TTIPI-TTAPAra 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

+ Clavetat, Nafarroako Kutzako banku elektronikoa • Kutzazain automatiko berrietan • Bulegoetan, CAFetako kudeatzaile pertsonal batek lagundurik • Beshela, bete ezazu argitaratze emanen diren leku, jarduerak eta proiektu gutxi buruzko argibide materialerako galdetegiak, zehaztu zure erabakia eta bidali Nafarroako Kutzara.




Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari

geure bezeroek aukeraturako proiektuak **can**

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez

 SARA SANTESTEBAN OTXANDORENAK 3 urte bete ditu urriaren 4an. Zorionak Zubietako familia guztiaren eta berexiki aitabxo eta amatxoren partetik. Hiru muxu haundi printxexa!	 ROSARIO LEZA ebxalartarrak 93 urte bete ditu urriaren 7an. Zorionak amatxi Nora birbilobaren partetik.	 ENAUT ZUBIRI ARBURUA leizarrak 7 urte bete ditu urriaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik.	 IRATI PONBAR LARRALDEK urriaren 11n 4 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik, eta ongi pasa zure egunean.	 JANIRE BAKERO goizuetarrak 13 urte bete ditu urriaren 21ean. Zorionak familia guztiaren partetik. A, ta Eltxitu hori astindu.	 IDOIAK urteak beteko ditu urriaren 22an. Aunitz urtez eta hagitz ongi pasa zure eguna. Muxu haundi bat!	 DONEZLEBEKO LOLE ZOZAIK urriaren 17an urteak bete ditu. Zorionak familia eta lagun baten partetik. Ea afari batera gonbidatzen gaituzun.	 AIORA FAGOAGA Izak 8 urte bete ditu urriaren 5ean. Zorionak Malen ahizpa, Eider eta Izaro lehengusinak eta familia guztiaren partetik. Muxuak!	 BENAT ZELAIETA EGIA lesakarrak urriaren 8an urtea bete du. Ongi pasa eta muxu handi bat Lesakako senideen partetik.
 ANARTZ SANCHEZ APEZTEK 3 urte egin ditu urriaren 10ean. Zorionak aitabxo, amatxo eta Goizuetako familiaren partetik. Muxu bat sagutxo!	 ANE OTAMENDI ABRIL beratarrak urriaren 5ean 6 urte bete ditu. Muxu pilo bat familia eta bereziki attatto, amatto eta Naroaren partetik. Zorionak!	 PABLO IRAZOKI OLAIZOLAK 5 urte bete ditu urriaren 10ean. Zorionak eta muxu aunitz Sunbilla eta Urdazubiko familiaren partetik.	 ZUHAITZ eta PABLOK urriaren 7an eta 10ean 7 eta 5 urte bete dituzte. Zorionak bihurri pare honi!	 PAULA PERURENA LABAIEN leizarrak 7 urte bete ditu urriaren 14an. Zorionak politte. Muxu bat.	 JULEN ZELAIETA IRIARTEK urriaren 8an urteak bete ditu. Zorionak etxekoan partetik eta ongi pasa eguna! Pastelaren zain egonen gara!			



ttipi-ttapa

ttipi-ttapa fundazioak zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: 15.996

Eskatzen dugu TTIPI-TTAPAren proiektuak aukeratu izanaren frogagarria Nafarroako Kutsaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAren 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

DAGOENKO
786
LAGUNEK
egin dute
gure alde



eskerrik asko!

Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari.

can



*Neurrira egindako leihoak
Diseinu eta modelo ezberdinak
Banakako soluzioak
Isolamendu termiko eta akustikoak
Energia aurrezpenak*

Ordoki industrialdea • ARIZKUN
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK

URRIAK 24, LARUNBATA

17:00 Lizuniagako Igoera

19:00 Barazkiopil lehiaketa eta trikitilariak Altzateko frontoian

URRIAK 25, IGANDEA

10:00etan Altzaten eskulangileen azoka eta barazki erakusketa

10:30etan Argazki erakusketa Labiaga Ikastolan

11:00tan gasna eta sagardo leihaketak Ricardo Baroja Eskolan

11:00tan Bera trikitilari taldearen ibilaldia

12:00etan Musika Eskolako 30. urteurrenaren kalejira berezia

13:00etan Berako Banda Altzateko plazan

16:30etan Hipo eta Tomax pailazoak Altzateko plazan

17:30etan Sari banaketa, enkantea eta bertsolariak: Julen Zelaia eta Jon Elizetxe

18:00etan Gure Txokoako dantzarien emanaldia eta Trikidantz

*Euria bada ekitaldiak Altzateko frontoian eta Kroldegian izanen dira



URRIAK 25 BERAN

LURRAREN EGUNA 2009



Artoitzatzen: Gure Txokoa Elkartea
Laguntzaileak: Barako Kultur Batzordena